

**Gradu amaierako lana**

**Zuzenbideko Gradua**

**ESPAZIO PUBLIKOEN KUDEAKETA  
KOMUNITARIOA  
ULIAKO LORE BARATZAK**

2018/19 ikasturtea

Egilea: Irantzu Marquet Lopetegi

Zuzendaria: Enekoitz Etxezarreta Etxarri

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Donostian, 2019ko maiatzaren 14ean

## AURKIBIDEA

<b>0. SARRERA.</b> .....	<b>2</b>
<b>1. ESPAZIOEN KUDEAKETARAKO EREDU KOMUNITARIOA.</b> .....	<b>4</b>
1.1 Eredu komunitarioa. Gizartea antolatzeko eredu berri bat. ....	4
1.1.1 <i>Eredu komunitarioa definitzen.</i> .....	4
1.1.2 <i>Garapen historikoari aipamena. Non du eredu komunitarioak bere jatorria?</i> 7	
1.1.3 <i>Hiri-baratzak.</i> .....	10
1.2 Abantailak eta desabantailak.....	11
1.2.1 <i>Abantailak.</i> .....	11
1.2.2 <i>Desabantailak.</i> .....	18
1.3 Etorkizuneko ikuspegia. Hiriarekiko eskubidea. ....	19
<b>2. AZTERKETA JURIDIKOA.</b> .....	<b>21</b>
2.1 Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea. ....	22
2.1.1 <i>Legearen azterketa.</i> .....	22
2.1.2 <i>Jarduera ekonomikoaren baldintza. Gizarte Ekonomiaren legearen</i> <i>5.artikulua.</i> .....	24
2.2 Kontratazio Publikoari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea. ....	26
2.2.1 <i>Kontratazio publiko arduratsua.</i> .....	26
2.2.2 <i>Ekonomia sozialari aipamen zuzena eta klausula sozialak.</i> .....	28
<b>3. ULIAKO LORE BARATZAK: KASUAREN AZTERKETA.</b> .....	<b>30</b>
3.1 Ideiaren jatorria. ....	31
3.2 Uliako Lore Baratzen Ingurugiro elkartearen Espazioaren autokudeaketa. ....	33
3.3 Konkurtso Publikoa eta Donostiako udalarekin harremana.....	35
3.3.1 <i>Konkurtso publikoa. Kontratu publikoa eskuratu.</i> .....	35
3.3.2 <i>Kontratu publikoaren arazoak.</i> .....	38
3.4 Egungo egoera eta helburuak.....	39
3.4.1 <i>BherriLab. Eredu komunitariorantz.</i> .....	41
<b>4. ONDORIOAK.</b> .....	<b>42</b>
<b>5. BIBLIOGRAFIA.</b> .....	<b>44</b>

## **0. SARRERA.**

Gradu amaierako lan honen bidez, ekonomia eredu berrien ikuspegia landuko da, zehazki auzotarrek espazio ezberdinak autokudeatzeko duten gaitasunean. Eta honekin batera, lotura zuzena duen kudeaketa komunitarioaren gaia. Aipatutako bi gai hauek, ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik aztertuko dira, bere ezaugarriak eta etorkizuneko ikuspegiari garrantzi berezia emanaz. Gradu amaierako lanaren helburu nagusia kudeaketa komunitarioa aztertzea da, eta era berean helburu espezifiko gisa Uliako Lore Baratzen esperientziaren analisia egin da. Auzo mailako espazioen kudeaketa komunitarioak ekonomia jasangarri eta eraginkorra sortzeko gaitasuna du eta adibideak geroz eta ugariagoak dira gure hirietan. Gainera, botere publikoen jarreraren bilakaera aztertuz gero, aurrerapausoak egon direla ohartzeaz gain, aldi berean oraindik ere lan handiaren beharra aldarrikatzen da.

Gizartean arlo ezberdinen inguruko kontzientzia berri ugari garatu dira azken hamarkadan, herritarrok behar ekonomiko eta sozial ezberdinak asetzeko burujabeak izateko nahia handia da. Hau kontuan izanda, ulertu behar da indarrean egondako ekonomia eta enpresa ereduaren itzaropena asko murriztu dela, batez ere azken krisi ekonomikoari erreparatu ezker. Hori dela eta, lan honen bidez, ekonomia eredu zaharretik kanpo dauden, beste ekonomia modeloen azterketa bat egin da. Asko dira ekonomia sozial eta solidarioko erakunde ereduak. Lan honen kasuan, maila lokalean, hau da hiri eta zehazki auzo mailako ekonomia “txikien” argibideak eman dira. Gainera, teoriak diona arakatzearaz gain, praktikan indarrean dagoen proiektu zehatz bati egin zaio erreferentzia: Uliako Lore Baratzak. Honek, ekonomia eredu berri hauen gaitasuna demostratzeko balio izan du, etorkizunean kontuan hartu beharrekoak direla aldarrikatuz.

Metodologiari dagokionean, lan hau burutzeko garaian, ikuspegi ugari materiala jaso da. Lehenik eta behin, autokudeatutako espazioek hiri mailan duten garrantzia aztertzeko, urbanismoaren inguruan lanketa handia egin duten hainbat autoreen lanak erabili dira. Hortaz, bilaketa bibliografikoan soziologia saila eta batez ere urbanismoa eta hiri eredu berrien inguruko informazioa eskuratu da. Aldizkari elektronikoen bidez ere, auzo mugimenduen eta autogestioaren inguruko informazioa bilatu da. Bestalde, azterketa juridikoa egiterako unean, legea beraren irakurketa eta azterketatik atera dira ondorio orokorrenak, eta batez ere lege ezberdinen konparaketan.

Bestalde, kasu azterketa egiteko unean, Uliako Lore Baratzen egitasmoari dagokionean, informazio gehiena aurrez aurre egindako elkarrizketatik lortu da, Uliako Lore Baratzen Ingurugiro elkartearen lehendakaria den Leire Rodriguezekin. Hala ere egitasmoak komunikatzeko dituen baliabideen bidez ere lortu da informazioa: egitasmoaren blog eta web gune ofizialaren bidez. Azkenik, Donostiako Udalaren Hirigintza saileko hainbat argibide jaso dira Udalaren web gune ofizialetik, bereziki lagungarriak izan direnak.

Gradu amaierako lan hau hiru atal nagusietan egituratzen da. Lehen atalari dagokionean, espazio baten kudeaketarako eredu komunitarioa aztertu da, ikuspegi teorikotik. Honetaz gain, autogestioa kontzeptuaren analisia ere landu da. Espazio baten kudeaketa komunitarioa eta honekin batera ulertu beharreko autokudeaketaren elementuak ulertzeko haien jatorri historikoari aipamena egin zaio, bai Espainia mailan eta baita Europa mailan ere. Ondoren, ekonomia eredu berri honek gizartearekiko dituen abantaila eta ezaugarri nagusiak miatu dira banan-bana oinarri juridikoei erreferentzia eginez. Era berean, ezaugarriez gain, praktikan ekonomia eredu honek dituen zailtasun eta oztopoei egin zaie aipu. Azkenik, espazioen kudeaketarako eredu komunitarioak lokalki duen eragina azaldu da, auzo mailan batez ere.

Bigarren atala edota kapituluaren harira, eredu komunitarioa eta autokudeaketa azaltzeko unean kontuan hartu beharko diren legeak aztertu dira. Ekonomia sozial eta solidarioaren barne aurkitzen den gaia jorratzeko, honako hau xedatuko duen lege nagusiaren azterketa orokor bat egin da, batez ere printzipio orientatzaileei erreferentzia eginez. Hala ere, legea aplikatzeko garaian eta praktikan aurki daitezkeen hutsune juridiko ezberdinak ere aintzat hartu dira. Bukatzeko, bigarren azterketa juridiko bat egin da, kontratazio publikoak ekonomia sozial eta solidarioaren garapenean duen papera ulertzeko. Bigarren azterketa juridiko honetan, europar batasuneko legediari analisi orokorra ere egin zaio.

Azkenik, hirugarren kapitulari dagokionez, aurreko bi atalak praktikan jarri dituen kasua aztertuko da Donostia hiriko Uliako Lore Baratzen proiektua. Auzo inizatiba honek, lehen ataleko espazioaren kudeaketa komunitarioaren ikerketa ulertzen laguntzen du. Bestalde, ekonomia sozialeko printzipio nagusiak indarrean daudela ikus daitezke. Ikerketa egiteko unean, proiektuaren ideia jatorria azalduko da, ezaugarriak eta hasierako helburu nagusiak adieraziz, ekologia eta ondarearen babesean zentratuz. Ondoren, Donostiako Udal gobernuarekin duen harremana aintzat hartuz, konkurtso publikoari erreferentzia egingo zaio, proiektuak dituen baimen eta baldintzak zehaztuz.

Hortaz gain, bukatzeko, egun proiektuaren egoera zein den azalduko da, etorkizuneko erronka nagusiak zeintzuk diren adieraziz eta hauei aurre egiteko asmoa zein den ezagutuz.

## **1. ESPAZIOEN KUDEAKETARAKO EREDU KOMUNITARIOA.**

### **1.1 Eredu komunitarioa. Gizartea antolatzeko eredu berri bat.**

#### *1.1.1 Eredu komunitarioa definitzen.*

Espazioen autokudeaketa azken hamarkadan gizartean garrantzi handia hartzen ari den fenomeno da. Ideia eta politika berriek gizartea antolatzeko eredu ezberdinak sorrarazi dituzte. Ekimen asko dira espazio autogestionatuaren bidez aurrera atera direnak, ideia eta jardura ezberdinak oinarri dituztela. Ekimen bakoitzaren arrazoi modura faktore ugari egon ohi dira: ekologia, lan esparruko genero berdintasuna, mehatxuan dagoen ondarea babesteko egitasmoak, auzoko espazioen hobekuntza bilatzen dutenak, etab. Espazioen kudeaketari berebiziko garrantzia eman zaio gizartean eta honekin batera, bertan herritarrok dugun parte hartzea ere nabarmenki nagusitu da. Parte hartze honek, espazioa berreskuratu eta administrazio publikotik kanpo, modu autonomoan jarduteko aukera eskaintzen du, espazio bereko biztanleen ongizate orokorrerako.

Maiz, auzoetan sortu izan diren arazoaren aurrean erantzun kolektibo bat emateko beharra ikusi da eta honen aurrean modu eraginkor eta kolektibo batean auzoak antolatzen hasi dira, mugimendu eta ekimen kolektiboak sorraraziz. (Rodriguez, 2002).

Honako ideia nagusia abiapuntu gisa hartuta, hiriko espazioetan kudeaketa komunitario nagusitu da, bizilagunek beraien eremu lokala aberasteko apustua egiten dutelarik. Auzoetan sortu diren arazo edota beharrez aurrean, kudeaketa komunitarioak bizilagunen parte hartzea eta ahotsa nagusitu du, hauen interesak gailenduz. Nahiz eta fenomeno berri bat izan, mundu maila osoan garapen handia izaten ari den hiri eredu berri bat eskaintzen du modelo komunitarioak, azken urteetan inguruko hiritan azalatu dena.

Hiriari dagokionean, egun, arlo urbanistikoari garapen handia eman dio eredu komunitarioak, ez soilik arkitektura ikuspegitik, baizik eta hiri bera eta bertan bizitzeko modu ezberdinak ulertzeko ideia berriak azalarazi dituelako. (Camara, 2012).

Hortaz, eredu komunitarioa gizartea antolatzeko eredu berri bat da, ekonomia sozial eta solidarioaren printzipio eta baloreekin erabat baliokidea dena. Hiri eredu

sozialago baten nahia dago, non hiritarrek bizitza egiten duten espazioetan parte hartze zuzena izateko beharra ikusi duten: alde batetik, ordezkapenezko parte hartzea dago, errepresentatiboa, alegia. Beste aldetik, parte hartze fisikoa dago, hau da, espazio ezberdinetan lan egiteko konpromisoa. Beraz, esan daiteke hiri tradizioaletik kanpo dauden alternatiba dela, garapen lokalean mugatzen dena bertako pertsonen interesak gailenduz. Funtsean, lehiakortasuna eta irabazi ekonomikoak bigarren mailako elementuak izango dira, eta eredu komunitarioan pertsonak eta hauen arteko elkarlana eta kooperazioa lehenetsiko dira.

Egungo ekonomia ereduak ez dizkio gizarteari behar bezalako erantzun eta irtenbideak ematen eta gabezia honen aurrean, eremu lokaletan sortu diren eredu ekonomiko berritzaileak ugari dira: “[...]la globalización económica refuerza las identidades locales y nacionales, como contrarespuesta.”. (Barrera, Sarasola, eta Malagón, 2017: 15.orr)

Eredu komunitarioa kontzeptu gisa ez dago bere osotasunean zehatz definituta. Hainbat autoreek honela definitzen dute El diagonal egunkarian: *“la gestión comunitaria parte del presupuesto de que los equipamientos y servicios son bienes comunes de la población, no recursos de la administración”*.<sup>1</sup>

Gizartea antolatzeko modu berri honek, faktore ugari barne biltzen ditu eta aldi berean, asko dira erabiltzen diren adierak. Faktore ugari (arrazoi ekologiko, urbanistiko, sozial...) egun auzoak antolatzeko garaian, eredu komunitarioa nabarmendu dute, borondate lokalari bidea eginez. Hori dela eta, autokudeaketarako eredu komunitarioa arlo ezberdinetan nagusitu da, bai hiri baratzten kudeaketa aurrera ateratzeko garaian adibidez, edota eraikin baten autogestioan. Honekin berretsi nahi da, kontzeptu beraren zabaltasuna eta baita dakarren konplexutasuna.

Gizartea eraldatzen ari den heinean, eredu komunitarioari egindako apustua geroz eta handiagoa da hiri mailan, eta garapen honek kontzeptuaren zehaztea dakar. Zehaztapen natural honetan aldiz, esaera eta adiera ugari jaio dira.

Espazioen autokudeaketari buruz aritzean, esaera ezberdin ugari daude. Kudeaketa komunitarioaren kontzeptuak marko juridiko zehatz eta definizio orokor bat

---

<sup>1</sup> <https://www.diagonalperiodico.net/movimientos/25987-la-gestion-comunitaria-la-economia-social-y-solidaria.html> (2019ko apirilean begiratuta)

ez duenez, badaude kontuan hartu behar diren beste hainbat esaera, besteak beste: autokudeaketa, kooperazioa, kudeaketa kolektiboa, mugimendu parte hartzaileak, hirigintza partehartzailea, autokudeaketa municipala etab.

Autokudeaketa hitzari dagokionez, hitza bera aztertuz gero, “auto” hitzaurreari aipamena egitea beharrezkoa da. Autonomia da azpimarratzeko beste kontzeptu bat. Pertsona talde zehatz batek parte hartzearen bidez, autonomoak dira ekintza bat edota jarduera ekonomiko bat burutzeko: *“la constitución y funcionamiento de instituciones o comunidades basadas en la autonomía, en la capacidad de decisión de las personas”*. (García, Ruggeri eta Iametti, 2012: 9.orr)

Era berean honela definitu daiteke autokudeaketa: *“la autogestión en la otra economía se afirma como un modo del actuar colectivo, según el cual los principios de la acción social se forman en la experiencia concreta y provienen del significado dado a las intenciones o las ideas que fundamentan el grupo”* (García, Ruggeri eta Iametti, 2012: 27.orr)

Hala ere, autokudeaketaren kontzeptua ez dago erabat zehazturik eta honek eztabaidagarria den espazio bat azaleratzen du: noiz dugu autokudeaketarako gaitasun osoa? J. Garcia Janek (2012) honako hau baieztatzen du: *“¿siente el sujeto que verdaderamente se gobierna a sí mismo? Si lo considera así, existe autogestión; si no, no existe.”* (García, Ruggeri eta Iametti, 2012: 9.orr)

Bestalde, oso erabilia den beste esaeretako bat, hirigintza partehartzailea da. Kasu honetan, espazio baten autogestioan auzotar edo biztanleek duten parte hartzeari egiten zaio erreferentzia. Gizarte eredu berri baten funtsezko elementua da, non gizarteak bere hiria nolako den erabakitzeko garaian, esku hartze zuzena eskatzen duen. Gizartea eta hiriaren arteko harremanak aldatzen ari direla garbi ikusi daiteke eta aldaketa honen ondorioz sortu da hirigintza parte hartzailearen kontzeptua. Honetaz gain, maiz erabiltzen dira *“smart cities”* edota *“smart growth”* esaerak hirigintza eredu berrien harira. Nahiz eta askotan energia berriztagarrien arloarekin lotu edota teknologia berrienekin, oinarrian etorkizuneko hiri ereduak gaia jorratzen denez, eredu komunitarioak badu bere garrantzia, batez ere, erakunde ereduak edota funtzionamenduan. Azkenik, *“botton up”* izeneko ekimenak daude, non kasu honetan administrazio publikoaren parte hartze eza adierazten da eta aldi berean akzio kolektiboari garrantzi berezia ematen dio, gizarte berriztatzaile bati bidea eginez. Auzotarrek beraien jardueran parte hartzetik lortutako irabazien ardura osoa izango dute, hau da, onuradunak izango dira. (Camara, 2012)

Aipatutakoarekin jarraituz: *“Si las necesidades sociales de sectores crecientes de la población europea, tal y como reconoce la misma UE, no están siendo cubiertas ni por el mercado ni por el estado, antes de asumir la crisis y del propio modelo o reconocer el potencial antagonista de las alternativas en constitución, siempre es mejor la huida adelante o la integración. Smart, sustainable and inclusive growth”* (Miró, 2015: 209.orr)

Beraz, asko dira egunerokotasunean erabiltzen diren esaerak eta nahasketa egoteko arriskua nabarmena da, kontzeptu orokor bat finkatuta ez dagoelako: *“[...] se ha visto la carencia y la necesidad de compartir nuevos términos para viejas formulas, o viejos términos para nuevas formulas. Así pues, conceptos como el de cogestión, gestión colaborativa, gestión ciudadana, gestión comunitaria o gestión cívica se intercalan en textos y debates, muchas veces usados como sinónimos y otras para mostrarse como opuestos.”*<sup>2</sup>

Hala ere, aztertutako esaera ezberdinek, balore zein printzipio berdinak edota antzekoak jasotzen dituzte; herritarrek edota hiritarrek, egun, aldaketa ezberdinak egiteko borondatea dutela adierazten da. Borondate honen bidez, espazioak gestionatu eta hauek ulertzeko era zaharrak alde batera utzi nahi dira, hiriari zentzu berri bat emanez. Gainera, administrazioaren jarrera eta indarrean dagoen modelo ekonomikoaren aurrean alternatibek tokia hartzen dute.

### *1.1.2 Garapen historikoari aipamena. Non du eredu komunitarioak bere jatorria?*

Espazioak kudeatzeko eredu komunitarioak, harreman zuzena du historian zehar sortu diren auzo mugimenduekin. Auzoetan eman diren arrazoi eta gertaera ezberdinek aldarrikapen ezberdinak sortu dituzte eta aldi berean, auzotar ugarik beraien bizilekuetan sortutako behar ezberdinei aurre egiteko tresna gisa erabili dute autokudeaketa. Herritar eta auzotarrek erabakietan parte hartzeko modu eraginkor eta zuzen bat bilatu zuten mugimendu ezberdin hauetan, eta horietako askok eremuen autokudeaketa eskatzen zuten. Ondorioz, esan daiteke eredu komunitarioaren garapenak harreman handia duela auzo mugimenduekin. Aipatzekoa da, historian zehar, mugimendu hauen helburua ere

---

<sup>2</sup> <https://www.diagonalperiodico.net/movimientos/25987-la-gestion-comunitaria-la-economia-social-y-solidaria.html> (2019ko apirilean begiratuta).



aldatzen joan dela; momentu historiko bakoitzean faktore eta ezaugarri ezberdinak hartu izan dira ardatz gisa.

Auzo mugimendu sozial eta kolektiboak honela definitzen ditu Martinez-Oterok, Tarrow autoreari aipu eginez: *“desafios colectivos planteados por personas que comparten objetivos comunes y solidaridad en una interacción mantenida en las elites, los oponentes y las autoridades”* (Martinez-Otero, 2001: 61.orr)

Espazio eredu berritzaileak eta hauek ulertzeko modu berriak planteatzen dituzte auzo mugimenduek, eta hauek eraldaketa gaitasun handia dute. Ondorioz, espazioen eredu komunitarioa gizartearen aldaketa urbanistikoaren eragilea da. (Castells, 1986)

Auzo mugimendu edota mugimendu sozial bakoitzak jatorrian ideia ezberdinak izan ditzake baina denek dituzte hainbat ezaugarri komun: lehenik eta behin, balore sozialei garrantzi handia emango zaie, eta honekin batera, gizartearen joera berrietan sinisten da. Bigarrenik, pertsona eta ingurua edota naturaren arteko harremana lehen mailako ardura kontsideratuko da. Hirugarren ezaugarriari dagokionean, ekonomia eredu tradizionalari aurka egiteko modua da, non, arlo politikoak zerikusi handia duen. Azkenik, auzo mugimenduen kooperazio jarrerari egiten zaio erreferentzia, bizilagunen elkarte edota auzo mugimendu ezberdinetan ez da hierarkiarik egongo, partaide guztien arteko berdintasuna da oinarri. (Martinez-Otero, 2001)

Espainia mailan eredu komunitarioari harrera eman zion bizilagun elkarten sorrera eta mugimendu ezberdinak 70.hamarkadara eramaten gaitu. Bizi kalitate baxu eta pobrezia handiko auzoetan eraldaketa bila mugimendu ezberdinak jaio ziren. Aldarrikapen kutsua zuten mugimenduak ziren, bizi baldintza hobek eskatzeko iniziatibak ziren, auzoetako arlo ezberdinetan berehalako aldaketak beharrezkoak ziren eta. (Rodriguez, 2002).

Indarrean zegoen gizarte ereduak auzo asko babesgabezia egoeran uzten zituen, batez ere hiri handietako periferian kokatutako auzoak. Inbertsio ekonomiko eta konpromisu sozial faltak, auzoak egoera kaxkarrean utzi zituen. Hori dela eta, zona marjinalak sortzeko joera nagusitu zen, auzoen arteko diferentzia sozialak eta baita ekonomikoak nabarmenduz. Aipatutako mugimendu sozialei esker bizilagunen elkarteek auzoetan egitasmo berriak aurrera eramateko aukera ikusi zuten eta ekonomia eredu berrien bidez, globalizazioari kritika eginez. Aldi berean, auzoen identitatea babestea zen helburu nagusia: auzoei bizitza ematea, alegia.

Migrazioak ere Espainia mailan izan duen garrantziak zerikusi handia du eredu komunitarioa eta auzo mugimenduen garapenarekin. 80.hamarkadatik aurrera, migrazio fluxu eta gizarte modelo ezberdinen ondorioz, etorkin asko etorri ziren urteak izan ziren. Honek, Espainiako gizarteari erronka berriak planteatu zizkion, hirietan bertan integrazioa eta ko-kudeaketarako joerak handituz. Kultura ezberdinen arteko nahasketa ere kontuan hartu beharreko elementua zen. Honen aurrean, hiritarren arteko eskubideen eta bizi baldintzen ezberdintasunak azaleratu ziren. Horregatik, talde kolektibo eta auzo mugimenduak jaio ziren etorrera agerikoa zen zonetan. Bizilagun elkarte hauek, autogestioa erabiltzen hasi ziren auzoetan hainbat jarduerak burutzeko, eta aldi berean beraien buruari enplegu duin bat emateko aukera ikusi zuten. Azken batean, baztertutako auzo marjinalak indarberritzeko balio izan zuen. (Rodríguez, 2002).

Aurrekoa berretsiz, esan daiteke ongizate amankomun bat bilatzea dela helburu nagusia: *“en las asociaciones obreras y campesinas se mezclaban la producción en común, el socorro mutuo y la reivindicación colectiva”* (Laville, 2015: 61.orr.)

Bestalde, 80.hamarkadan hiri mugimendu ekologista eta feministak nagusitu ziren, baina orokorrean auzo mugimenduak ez zuten garapen handirik izan, batez ere baliabide ezagatik eta botere publikoarekiko eta politika arloko konfiantza ez zegoelako. Hala ere, 90.hamarkadan, gorakada handia egon zen, bizilagunen auzo mugimendu ugari sortuz. (Martínez-Otero, 2001)

Demokraziaren irudia kolokan dagoenean eta honen inguruko iritzi kritikoak ohikoak direnean, hala ondorioztatu da historian zehar, hirietan aldaketak ematen dira. Gizarteko desadostasunak arlo urbanistikoan ere eragina du. Esan bezala, auzoek eredu komunitario oinarri gisa hartu zuten, beraien bizi kalitate eta egoera ekonomikoaren oreka lortzeko. (Barrera, Sarasola, eta Malagón, 2017).

Hasiera batean aldarrikapena zen mugimendu hauen elementu nagusia. Behar materialei ematen zitzaien garrantzi handiena. Aldiz, egun, krisi urbanistikoa dago oinarrian, horrela bi ikuspegi ezberdinez Espainiako historian zehar. Bigarren ikuspegi honetan, hiri ereduari eman zaio garrantzi handia, gizarte ekonomiari edota ekologiarri protagonismoa emanez. Hortaz, egun, aldarrikapena bigarren plano batean geratu dela esan daiteke, eta auzoa eta hiria eraldatzeko ikuspegia lantzen dute hiriari antolamendu sozialago bat emanez. (Martínez-Otero, 2001)

Azken urteetan krisi ekonomikoaren ondorioz, jarduera ekonomikoak asko aldatu dira Espainia mailan. Baina honetaz gain, gizarteak jarduera ekonomikoen eta ekonomiari orokorrean zion ikuspegia eta iritzia asko aldatu da. Egun eredu komunitarioak eta honekin batera gizartea eraldatzeko gaitasuna duten ekonomia eta antolakuntza ereduak asko nabarmendu dira, gizarteak bizitutako “ekonomia eredu tradizionalen” sinesgarritasuna galdu baitu. Honekin batera, administrazio publikoak azken urteetan hartu duen jarrera aldaketa nabarmendu behar da. Inbertsiogile pribatu gisa jarduten du, non auzoen espazio ezberdinak erabiltzen dituzten ongizate orokorra bilatu ordez, inbertsio ekonomikoak egiteko. Hortaz, esan daiteke garapen lokalaren arriskua nagusitu dela, hau babesteko inizatiba eta mugimenduak sorraraziz.<sup>3</sup>

### 1.1.3 Hiri-baratzak.

Europa mailan ere eredu komunitarioak izan du bere protagonismoa. Inguruak kontuan izanda aurrera atera diren jarduera ekonomiko komunitarioak ugariak dira; eta horien artean hirietan sortutako baratza komunitarioak adibide garbienak dira. Kasu askotan eremuko baliabide naturalak errespetatzeko asmoarekin auzotarrek berdegune hauen gestioa lortu dute.

Lehen mundu gerrako sarraskiaren ondoren, “*war gardens*” deituriko hiri baratzak sortu ziren. Auzo berdineko bizilagunek beraien etxeen teilatu edota erein zitekeen lurrian, baratzak sortu zituzten, ekoizkinak komunitatean banatu ahal izateko. Elikagai beharra handia zen eta hiri baratza hauek herritarren oinarrizko beharrak asetzen zituzten lehen mundu gerraren hondamendiaren ondoren. Erresuma Batuan nabarmenki garatu ziren aipatutako hiri baratzak, kontuan izanda bertara elikagaiak iristeko modua zailagoa zela; alemaniar urpekariak etengabe suntsitzen bait zituzten elikagaiak garraiatzen zituzten itsasontziak. Azkenik azpimarratzeko da, emakumeen presentzia oso altua zela, baratzen ustiaketaren lan karga handiena beraiek atera baitzuten aurrera. (Morán eta Aja, 2011)

Erresuma batuaz gain, Europako beste hirietan ere antzeko adibide ugari aurki ditzakegu, besteak beste; gerra ondorengo Alemanian, Berlinen, elikagai faltagatik

---

<sup>3</sup> <https://www.diagonalperiodico.net/movimientos/25987-la-gestion-comunitaria-la-economia-social-y-solidaria.html> (2019ko apirilean begiratuta)

inprobisatutako baratzak ere sortu ziren. Egun arlo urbanistikoaren zati handi baten parte dira, gaur egungo parkeak adibidez. (Martinez, 2016)

Bigarren mundu gerran, hiri mailako baratzetara sustapen handia eman zitzairen, eta elkarte eta mugimendu bereziak sortu ziren, “*Dig for victory*” deiturikoak. Gaur egungo erresuma batuko berdegune askoren jatorria honako hau da. (Morán eta Aja, 2011)

Azpimarratzeko da bigarren mundu gerraren ondorio latzen aurrean gobernuek sustatutako inizatibak zirela honako hauek. Gobernuek espazio ezberdinen lagapena egin zien herritarrei. Herritarrei eremu baten autogestio osoa lagatzen zitzairen, lurra ustiatu eta aprobetxatu zezaten. Nahiz eta administrazioaren presentzia nabaria izan, egungo eredu komunitarioaren oinarri berdina jarraitzen zela esan daiteke.

Bestalde, egun hiri askotan garatu dira hiri baratza moduan autokudeatzen diren eremuak, aurretiaz aipatutakoaren harira. Adibide gisa, *Benimaclet*-eko hiri baratzak aipatu daitezke. Bizilagunek utzita zeuden zona ezberdinetan inizatiba ezberdinak egiteko asmoa adierazi zuten, baina denboran zehar udaletxeak ez zuten proiekturik sustatu. Auzoan zeuden beharrak ez ziren asetzen eta bizilagunak deseroso zeuden administrazioaren erantzun ezagatik. Hori dela eta, modu kolektiboan antolatzea erabaki zuten eta lurra lantzearekin batera, komunitatearentzako izango zen baratza bat sortuaz. Prozesua erabat autogestionatua izan zen eta auzoari bizitza emateaz gain, baratzatik sortutako ekoizkinek familia ugari elikatzeke balio dute egun. Ekonomia lokalaren garapenaren adibide garbi bat da. (Sanz, 2015)

## **1.2 Abantailak eta desabantailak.**

### *1.2.1 Abantailak.*

Lehenengo abantaila moduan, espazioak kudeatzeko garaian eredu komunitarioak duen ezaugarri nagusia aipatu behar da: kudeaketa demokratikoa. Gizarte Ekonomiaren legea erreparatuz gero, kudeaketa demokratikoari erreferentzia egiten dio bere 4.a) artikuluan<sup>4</sup>, non, printzipio bezala jasotzen du legeak, eta honek pertsonen erabakiak eta parte hartzea lehenesten ditu. Era berean, gardentasunaren printzipioa ere kontuan hartu behar da, artikulua berdinean jasota datorrena.

Gardentasuna eredu komunitarioan dagoen baldintza nagusia da aipatutako balore demokratikoekin batera. Erabakiak hartzerako garaian, erabaki ekonomiko eta

---

<sup>4</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea: 4.a) art.

estrategikoak, gardentasuna eskatuko da prozesu orotan. Autokudeatutako proiektuari buruzko informazioa denentzako eskuragarria da. Hortaz, komunikazioak berebiziko garrantzia du eredu komunitarioaren arloan.<sup>5</sup>

Molinak honako hau baieztatzen du kudeaketa demokratikoaren inguruan: “*Una democracia local de todos exige una planificación comprometida y aceptar que la triada poder/dinero/éxito, no domine la sociedad local, porque el desarrollo lo entiendo como un equilibrio entre igualdad, la dignidad y el ejercicio del poder compartido.*” (Molina, 2015: 3.orr).

Funtsean, nahiz eta kudeaketa komunitarioak oinarri demokratikoak izan, jarduera ekonomiko jasangarri batekin osatu behar izaten da, eta autore askoren ustez erronka handiena honako hau da. Lan taldearen helburuak eta interesak asetzeaz gain, ahalik eta jarduera ekonomiko eraginkorrena burutuko da. Aztertutako balore demokratikoak baztertu gabe eta aldi berean, ekonomiak duen garapen naturala baliokideak izan behar dira (Laville, 2015).

Bigarren abantailari dagokionez, parte hartzea nabarmendu behar da. Kudeaketa demokratikoarekin batera osagarri den elementua da, eredu komunitarioaren alderdirik oinarritzakoa: “*Participación y democracia están vinculadas y pretenden en ese compromiso compartido perfeccionar la democracia, elevar valores éticos y la transparencia en todos los espacios locales*” (Molina, 2015: 2.orr).

Herritarrek espazio baten kudeaketan parte hartuko dute, non beraien erabakiak eta jarduerak aurrera eramango diren. Hala ere, herritarrek ez dute soilik ordezkapen moduan parte hartuko, baizik eta parte hartze fisiko eta zuzen bat izango dute eredu komunitarioan. Komunean duten espazioari buruzko erabakietan parte hartzeaz gain, bertan lan egingo dute eta lanetik ateratako irabaziak jasoko dituzte. Horregatik, parte hartze aktiboa ugari lantzen den elementuan da eredu komunitarioko espazioen gestioan.

Eredu komunitarioa ekonomia sozialaren marko juridikoan barneratzen da, non pertsonen ongizatea lehenesten den. Irabazi ekonomikoak bigarren plano batean geratuko

---

<sup>5</sup> <https://www.diagonalperiodico.net/movimientos/25987-la-gestion-comunitaria-la-economia-social-y-solidaria.html> (2019ko apirilean begiratuta)

dira eta pertsonen presentzia eta erabakiak lehen mailako ardura dira. Honen harira, parte hartzea printzipio bezala dator xedatuta Gizarte Ekonomiaren Legearen 4.a) artikuluan.<sup>6</sup>

Eredu komunitarioak dakarren beste onura deszentralizazioa da, eta honek aldi berean dakarren tokiko garapena. Deszentralizazioa botere publikoen erabakietara mugatzen da. Auzo mugimendu asko eta honekin batera espazioak, publikoak edota pribatuak, autogestionatzeko proiektu ugari interes publiko ezberdinak asetzeko sortu dira, administrazioak behar hauei irtenbiderik eman ez dielako. Hortaz, espazio baten kudeaketa komunitarioak, administrazio publikoen jarrerari aurka egiteko tresna gisa uler daiteke, salaketa egiteko modua.

Honako kontzeptua erabiltzen dute hainbat autoreek: “*esfera pública no estatal*”, ondorengoa baieztatuz: “...*una serie de proyectos que velan y potencian los intereses públicos pero que se encuentran contruidos al margen o, incluso a pesar de la administración*”.<sup>7</sup>

Eredu komunitarioak dakarren beste aspektu baikor bat ingurumena eta ekologiari ematen zaion garrantzia da. Arlo honetan ugari dira aipatu daitezkeen gaiak. Lehenik eta behin baliabide ezberdinen erabilpen egokia.

Espazio baten kudeaketan, espazio honen inguruari begirune handia izango zaio, bertan aurki daitezkeen baliabide naturalak zainduz. Eta hauek erabili ezker, erabilpen eraginkorra sustatuko da, baliabide naturalak babestuta egon daitezen eta etorkizunean baliozko izaten jarraitu dezaten. (Ostrom, 1990).

Ingurumenaren arloan egiten den ezaguera lanketa geroz eta nabarmenagoa da egun, batez ere etorkizuneko kalteak eragozte aldera. Ingurumenari buruzko kontzientzia asko garatu da eta espazio ezberdinen erabilerarekin harreman oso estua duen gaia da. Esan daiteke, auzotar askok honako faktore hau izan dutela kontuan espazio bat autokudeatzeko proiektu bat sortzeko unean. Azken finean, espazio batean jarduera komunitario bat egiteko unean, ingurua errespetatzea sustatzen da, berean utziz. Ez da espazioa jarduera ekonomiko bat aurrera ateratzeko erabiliko, baizik eta inguruarekin berarekin jardungo da.

---

<sup>6</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea: 4.a.art.

<sup>7</sup> <https://www.diagonalperiodico.net/movimientos/25987-la-gestion-comunitaria-la-economia-social-y-solidaria.html> (2019ko apirilean begiratuta)

Ingurumenari dagokionean, baliabide ezberdinen erabilpen egokia bultzatzea garrantzi handikoa da. Etorkizuneko ekonomia jasangarri hizpide hartuta, horrela, espazio bat gestionatzen duen lan talde batek inguruarekin konpromiso bat hartuko du, bertako baliabideak ahalik eta egokien erabiliz.

*“Ya no se puede crecer de cualquier modo. Es preciso hacerlo manteniendo las mismas condiciones ambientales anteriores. Es decir, hay que cuidar que las circunstancias medioambientales permanezcan.”* (De Castro, 2005: 36.orr)

Gertutasunari aipamena egitea funtsezkoa da espazio baten kudeaketa komunitario arloan. Gertutasuna eta eskuragarritasuna elkarrekin ulertu behar diren elementuak dira. Komunitate batek espazio bat autokudeatzen duenean, ongizate komun bat bilatzen du, partaideen interes eta helburuak kontuan hartuz. Hau dela eta, autokudeatzen ari den espazioa denentzako eskuragarria izan behar da, ez soilik komunitatearen parte hartzaileentzat. Landuko diren baliabide edota emango diren zerbitzuak edonorrentzat gertukoak izan behar dute, inolako bazterketa eta diskriminaziorik gabe.<sup>8</sup>

Funtsean, aurretiaz aipatutako abantailak gogoan izanda, pertsonari eta bere lanari ematen zaion ardura handia da, gertukoenarekin lan egiten da, bai baliabide eta baita pertsonekin ere: *“Otro elemento relacionado con las formas de participación en las actividades y con implicación en las mismas, es la cercanía: Un alto grado de acceso o proximidad física al espacio en el que ese desarrolla la actividad de la que se trate”*. (Barrera, Sarasola eta Malagón, 2017: 26.orr.).

Hurrengo abantaila, eredu komunitarioaren erantzunkidetasuna da. Kontzeptu honekin batera, aspektu ugari daude aztertzeko.

Lan talde batek espazio baten kudeaketan eredu komunitarioa hautatzerako unean, helburu eta interes komunak aztertu eta era kolektiboan jarduten dute. Bi elementu nagusi bereiztu daitezke espazio baten gestio komunitarioan; alde batetik, aipatutako helburu eta interes berdinak dituzten pertsonak elkartzeko asmoa eta honekin batera, helburu hauek emaitzak izan ditzaten jarduera ekonomiko burutuko dute. Bestetik, pertsona talde honek, ongizate orokor bat bilatuko du, edonolako bazterketa eta ezberdintasunak albo batera

---

<sup>8</sup> <https://www.diagonalperiodico.net/movimientos/25987-la-gestion-comunitaria-la-economia-social-y-solidaria.html> (2019ko apirilean begiratuta).

utziz. Interes berdinak izateaz gain, taldeak printzipio ezberdinak amankomunean izango dituzte, solidaritatezko espazio bat eratuz. (Martinez-Otero, 2001).

Aipatutako azken honek, boterea eta erantzunkidetasunaren banaketa aipatzea dakar: *“Distribuir el poder requiere abandonar la comodidad y el victimismo para compartir responsabilidades, así como generar un clima de confianza, lo que pide mucho diálogo y conocimiento mutuo. Supone reducir el “poder sobre” y desarrollar el “poder para”, ir migrando del poder que excluye al poder que suma.”* (García, Ruggeri eta Iametti, 2012:12.orr).

Botere banaketaren oinarriak errespetatu ezker, bazterketa gutxiago dago, non bakoitzak bere ahotsa erabiliko duen eta burujabea den bere erabakiak hartzeko, beti ere kolektiborako onura bilatuaz. Funtsean, botere banaketa egoki eta eraginkor batek, elkarlan probetxugarri bat ekartzen du, non bazterketa gutxitu egiten den. (Camara, 2012)

Boterea egoki banatuta dagoen heinean, arriskua gutxitu egiten da, eta burujabetza duen lan talde batek ondo kudeatzeko aukerak izango ditu. Gainera, pertsonen lan autonomoak helburu globalak betetzeko gaitasuna izango du, proiektu ezberdinak sustatu eta sortuz. (García, Ruggeri eta Iametti, 2012)

Hurrengo abantaila eredu komunitarioak lanetik sortutako irabaziak garapen lokalean inbertitzeko duen gaitasuna da: bizilagunek lan etekinak garatzen ari diren proiektura bideratzea alegia. Honen harira helburu sozialaren kontzeptua aipatu behar da, eta Gizarte Ekonomiaren Legeak egiten dion erreferentzia bere 4.b artikuluan: *“b) Aplicación de los resultados obtenidos de la actividad económica principalmente en función del trabajo aportado y servicio o actividad realizada por las socias y socios o por sus miembros y, en su caso, al fin social objeto de la entidad.”*<sup>9</sup>

Bestalde, helburu sozialaren elementuaz gain, kapital soziala edo gizarte kapitalaren kontzeptua sortu da. Kontzeptu honek garapen lokalaren oinarriak barneratzen ditu; alde batetik, ekonomia osasungarri eta jasangarri bat eta beste aldetik, pertsonen arteko bizikidetasun eta solidaritatea. Gizarte kapitalak, berebiziko garrantzia du eredu komunitarioan eta ekonomia sozialean, gizartearen garapena dakarren elementu nagusienak barneratzen dituelako: hezkuntza, integrazioa, gizarte portaera egokia, osasuna eta ingurumena, askatasuna, gertutasuna, konfiantza, parte hartzeko gaitasuna,

---

<sup>9</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea: 4.b.art.



elkartasuna, gardentasuna, aberastasun materiala eta ez materiala eta beste hainbat. (De Castro, 2005)

Aipatukoaz aparte, eredu komunitarioak duen beste abantaila edota ezaugarrietako bat enplegua sortzeko gaitasuna da. Gainera, norberak bere buruari lana ematean datza, non auzotarrek eremu bat kudeatzerakoan, bertan lan egiten hasten diren. Lan honek belaunaldietan zehar bilakaera izanez gero, gazte profesional eta formatuei lanpostuak eskaintzeko aukera ere sortzen du; jarduera ekonomikoa identitate lokala mantenduaz jarraitzeko okasioa izan daiteke.

Historian zehar ikusi izan da langabezia tasak altuak zirenean, auzoetan elkarlana eta auzoaren garapena bultzatuz ongizate amankomuna lortzeko lan egiten hasi zela jendea. Testuinguru honekin ulertzen da, norberak bere ongizaterako lan egiten duela espazio baten autokudeaketan. Funtsean, langabeziari aurre egiteko instrumentu gisa ulertu daiteke ekonomia eredu hau.

Era berean, sortuko den lana, kalitatezko da. Autoreek eredu komunitariotik eratorritako lana bazterketarik gabekoa eta berdintasunean oinarritutako dela diote eta honela baieztatzen dute hainbat autorek Mance-ri aipamena eginez: *“Generalmente, en las iniciativas autogestivas, disminuye la diferencia de remuneración entre los trabajadores”*. (García, Ruggeri eta Iametti , 2012: 26.orr)

Krisi ekonomikoa dela eta lan arloko segurtasun falta handia da, eta prekaritatea nagusi da. Honek, gizartearen desoreka ekartzen du, pertsonen arteko ezberdintasun sozial eta ekonomiak indartuz. Horregatik, ekonomia eredu sozial eta solidarioak arazo honi irtenbidea emateko gaitasuna du, lana sortzeaz gain, kalitatezko eta solidaritatezko lan bat eskaintzen duelako: *“Sin empleo se corren fuertes riesgos del deterioro democrático y de inestabilidad social, lo que deteriora las condiciones favorecedoras del desarrollo económico.”* (De Castro, 2005: 37.orr )

Gainera, auzotarrek eremu ezberdinen komunitatean ustiatzerakoan, bertatik baliabide ezberdinak eskuratzeko aukera dute. Baliabide hauek etorkizuneko inbertsio-gai dira, jarduera ekonomikoari jarraipena emateko. Hortaz, eredu komunitarioak jarduera ekonomiko finko eta egonkorra eratzeko gaitasuna duela ondorioztatzen da.

Honela laburtu daitezke eredu komunitarioaren abantailak:

ESPAZIOEN KUDEAKETA KOMUNITARIOAREN ABANTAILAK	
Abantailak	Definizioa
Kudeaketa demokratikoa	Eredu komunitarioaren baloreen oinarria da. Pertsonak lehenetsiz, erabakiak gardentasunez hartuko dira.
Parte hartzea	Balore demokratikoekin batera ulertu beharreko abantaila da. Erabaki eta jardura ezberdinetan parte hartze aktiboa gailenduko da: alde batetik, erabakiak hartzerakoan, era errepresentatiboan. Eta beste aldetik, espazioan bertan lan egiteko unean, parte hartze zuzena egongo da.
Deszentralizazioa	Botere publikoen erabakien eragin eremua mugatzean datza. Erabakiak eta jarduerak tokiko garapena lortzeko, tokian bertan burutuko dira.
Ingurugiroa	Eredu komunitarioan elementu nabarmena. Inguruko baliabide naturalak modu egokian erabiltzean datza. Inguruko elementuak errespetatuz eta babestuz jardura bat aurrera aterako da.
Gertutasuna	Espazio berdineko parte hartzaileen interes komunak eta helburuak asetuko dira. Tokiko garapena eta ongizatea lehenesteko, eskuragarritasunak garrantzi handia izango du informazioari dagokionean.
Erantzunkidetasuna	Era kolektiboan jardungo da, taldearen ezaugarriak errespetatuz. Botere banaketa egokia izanez gero, burujabetasun handiko parte hartzea sortuko da.
Lokalean inbertitzea	Irabaziak tokiko garapenean inbertituko dira. Gizarte kapitalaren kontzeptua barneratzen du. Burutzen den jardura eta parte hartzen duten pertsonenganako inbertsioa egingo da.
Enplegua sortzeko gaitasuna	Espazio bat era komunitarioan kudeatzeko garaian, norberak bere buruari lana emateko aukera du. Era berean, belaunaldietan zehar luzatzeko gai duten kalitatezko lanpostuak sortzeko aukera da.

\*Iturria: titulu honetan aztertutako iturrietatik geuk sortutako taula.

### 1.2.2 Desabantailak.

Modelo komunitarioak egungo hiri ereduetan duen protagonismoak garbi uzten du orokorrean berrikuntza ugari ekartzen dituela eta etorkizuneko hiri sozialera iristeko eredu egokiena dela. Hala ere kontzeptua berria denez gero, zehaztasun falta dago, non arauketa juridikoa eta informazioa murrizta den.

Autore askok hasiberria den elementu gisa definitzen dute, eta praktikatik eta eguneroko jardunean ikusten da eredu honen funtzionamendua nolakoa den. Ez daude autokudeaketarako baldintzak zehaztuta, eta horregatik, proiektu bakoitza garatzen doan heinean erabakitzen dira xehetasunak. Azken finean ez da mugatu zenbat pertsona behar diren parte hartze hau onartzeko, edota asmoa soilik nahikoa den espazio publiko bat gestionatzeko orduan. Bestalde, hiztegi ikuspegi aldetik nahasmen nabarmena dago. Askotan hitz berdina erabiltzen da, baina autokudeatzen den espazioaren jatorria non dagoen adierazi gabe, ez da jakiten izatez pribatua ala publikoa den. Hiztegi aldetik ere hortaz, hasiberria den kontzeptu baten aurrean gaudela esan deiteke. (Camara, 2012).

Gizarte Ekonomiaren Legearen<sup>10</sup> bitartez, eredu komunitarioak jarraitu beharko diren baloreak zeintzuk diren xehatzen da. Hala ere, maila sakonago bateko marko juridiko beharra dago, non aspektu zehatzagoak jorratuko diren. Azkenean, nahiz eta garatzen ari den hiri eredia izan, garrantzi handia hartzen ari da azken urteetan, eta marko juridiko osatu baten falta nabaria da.

Ostera, eredu komunitarioaren desabantailak bat, administrazio publikoarekin duen erlazioa izango da. Kontzeptua hasiberria denez administrazio publikoek ez dute apustu egiten eredu honen alde. Gainera, autore askok adierazi duten gisa, azken urteetan eta batez ere hiri arloan, botere publikoek hiri espazioak inbertsioak egiteko erabili dituzte, garapen lokala eta hiritarren iritzia edo ahotsa baztertuz. Hortik sortu dira, autogestiorantz eraman diren proiektu asko, administrazioaren jarrera edota politika mota horri aurka egiteko.<sup>11</sup>

Askotan aipatutako guztia kontuan hartuta, administrazio publikoen jarrerarekin ados ez dauden hiritarrek eredu komunitarioa jo eta espazio bat autokudeatzeko ardura

---

<sup>10</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea.

<sup>11</sup> <https://www.diagonalperiodico.net/movimientos/25987-la-gestion-comunitaria-la-economia-social-y-solidaria.html> (2019ko apirilean begiratuta)

hartzen dute. Administrazioak arazo edota beharren aurrean erantzunik eman ez duenez, auzo ugari dira, elkarlanean antolatu eta auzoko espazio ezberdinak autokudeatzen hasten direnak, aberaste lokala lortzeko. Honek aldi berean, administrazioei jarrera aldatzeko arrazoi sendo bat ematen dio, non auzokideekin harremanak hobetzeko beharra ikusten den. Hori dela eta, administrazio publikoek eredu komunitariora jotzeko tendentzia lantzea funtsezkoa ikusten. Eta aldi berean, eremu publikoen gestioa lagatzea planteatu beharko lukete. (Molina, 2015)

### **1.3 Etorkizuneko ikuspegia. Hiriarekiko eskubidea.**

Hiria egituratzeko garaian eredu komunitarioak auzo edota espazioen aberaste lokala dakar. Auzo zehatz bateko espazio bat autokudeatzen denean, inguruko bizilagunei baliabide ezberdinak ematen zaizkie, eta aldi berean, auzotarrek beraien lana eta jakintza eskaintzen dute autokudeatutako proiektua ahalik eta eraginkorra izan dadin. Ekonomia sozial eta solidarioa kontuan hartuta aztertu behar den fenomeno da, oinarrian inguruan dagoena eta pertsonak direlako. Hortaz, helburua ez da emaitza ekonomiko handiak lortzea, baizik eta auzoari bizitza ematea, auzo eta auzotarren ongizaterako inizatiba bat burutzea.

Hiriaren gain dugun garrantzia azpimarratzekoa da, azken finean gure bizitzeko modua edota honen isla baita. Hiri eredu berrien inguruan erabakitzekeo eskubidea ere aipatzekoa da. Harvey autoreak hiriaren eskubidea kontzeptua landu du eta honela definitzen du: *“El derecho de la ciudad es por tanto mucho mas que un derecho de acceso individual o colectivo a los recursos que esta almacena o protege; es un derecho a cambiar y reinventar la ciudad de acuerdo a nuestros deseos”* (Harvey, 2012: 20.orr.)

Auzotarren bidez autokudeatutako eremuetan, auzotarra ekoizlea izateaz gain, kontsumitzailea da aldi berean. Komunean dute lurra ustiatu ondoren handik eratorritako ekoizkinak jaso eta kontsumituko dituzte. Aipatutako hiri baratzen adibidean garbi ikusten da honako hau. Irabaziak edota ekoizkinak auzotarren ongizate orokorrerako eta auzotarren behar ezberdinak asetzeko bideratuta egongo dira. Hortaz, auzotarrek lana egiten duten eremuak emandako ekoizkinak jasoko dituzte, alde biko harreman bat sortuz. (Camara, 2012).

Aipatutako azken honek, adierazten du ekonomia eraginkor bat sortzeko aukera handia dela, eremu lokalean zehaztuz gero. Auzoa bera kontsumitzailea eta ekoizlea edota inbertsiogilea den heinean, ekonomiak indarrean jarraitzen du, inguruari hazkunde eta

egonkortasun nabarmen bat ematen. Eta aldi berean, auzotarren oinarrizko helburu soziala beteko da; *“aplicación de los resultados obtenidos de la actividad económica principalmente en función del trabajo aportado y servicios actividad realizada por la socias y socios o por sus miembros y, en su caso, al fin social de la entidad.”*<sup>12</sup>

Funtsean, espazio lokal baten bilakaera sozialak aspektu ugari hobe bihurtzen ditu. Hiri baratzen inguruan adibidez, zona berdeen aprobetxamendua nagusitzen da, non ingurumen baloreak kontuan hartuko diren. Honetaz gain, ikuspegi ekonomikotik, auzotarrei lan egiteko aukera ematen zaie, enplegu ezberdinak sortuaz. Jarduera ekonomiko erantzule bat sortuaz, espazioen bilakaera onerako izango da. Bestalde, auzotarren artean ekonomia eredu berri hauek jarraituz, identitate bat sortzen da, non balore eta printzipio ezberdinak amankomunean burutzen dituzte.

Era berean, hiri edota espazio eredu berriekin batera, lan eredu berri bat aztertzen da espazio bat komunitatean autokudeatzeko momentuan. Elkarlana da oinarria, bizilagunen interes amankomunak mesedetzeko; *“Marx no defiende la propiedad estatal, sino alguna forma de propiedad que corresponda al trabajador colectivo que reproduce para el bien comun”* (Harvey, 2012: 121.orr.)

Botere publikoetatik independenteak diren inizatibak direla kontuan hartu, gertuko jendeak hartzen ditu espazioaren inguruko zehaztapenak. Hori dela eta, erabakiak espazio txikiago batera mugatzen dira, eremu lokalera, garatze prozesu natural bat sortaraziz. Horregatik botere publikoen deszentralizazio eta erabakiak hartzeko gaitasunaren mugaketak auzoko bizilagunentzako abantaila gisa ulertzen da. Funtsean, hiri eredu berriek norberak bere hiriarekiko eta inguruarekiko duen konpromisoa hartzea dakarte eta bizilagunen erabakiak nabarmentzea.

Hemendik autore ezberdinek, egungo sistemaren gainbehera baieztatzen dute, erabaki lokalen aldeko inizatibak babestuz; *“... queremos destacar la existencia de iniciativas de base local y comunitaria, estructuradas en la participación, autogestión, cooperación, etc., que nacen y se desarrollan como contrapeso a una situación de crisis económica, en el contexto de la globalización neoliberal.”* (Barrera, Sarasola eta Malagón, 2017: 24.orr.)

---

<sup>12</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea: 4.b.art.

De Castrok lau multzotan bereiztu du garapen lokala: lehenengo, inbertsiogile pribatuak aberastasuna sortzeko gaitasuna ez duen eremuetara aberastasuna ekartzeko gaitasuna du eredu komunitarioak. Bigarrenik, kohesio sozialari egiten dio aipamena. Hirugarren ondorio gisa, kalitatezko eta profesionala den lan mundu baten sorrera aztertzen du. Eta azkenik, finantza arloko joera moral eta etikoen indarra azpimarratzen du. (De Castro, 2005).

## **2. AZTERKETA JURIDIKOA.**

Espazioen kudeaketarako eredu komunitarioak ez du marko juridiko zehatz bat, eta garbi dago honek desabantaila ugari sortu dituela. Hala ere, kontzeptua bera ekonomia sozial eta solidarioaren barne dago. Hori dela eta, Espainia mailan Gizarte Ekonomiaren Legea (5/2011)<sup>13</sup> erreferentzia nagusi modura erabiltzen da, jarduera komunitarioaren eta autokudeaketaren balore eta printzipioak zehazteko unean.

Gipuzkoa mailan, Ekonomia Soziala bultzatzeko 15/2014 Foru Araua<sup>14</sup> xedatu da. Ekonomia sozialeko erakundeak garatze aldera, botere publikoen sustapen neurri ezberdinak proposatzeko ardura xedatzen du foru arauak, Espainia mailako legearen 8.artikulua<sup>15</sup> jarraituz.

Espazioen kudeaketa komunitarioaren ekonomia sozialaren ikuspegiak gain, bigarren azterketa juridiko bat dago kontuan hartzeko: autokudeatzen ari den espazioaren izaeratik eratorritako harremanen erregulazioa. Autokudeaketarako erabiltzen den espazioak izaera publikoa duenean, problematika bat sortzen da, botere publikoekin erlazioa erregulatu behar delako: alde batetik, espazio baten gestioaren lagapena egon daiteke kontratu bidez egingo dena; beste kasuetan aldiz, hitzarmenen bidez erregulatzen da; bestalde, konkurtso publiko bidez erregulatu diren adibideak ere badaude. Hemen, 2017ko Kontratazio Publikoaren lege berria<sup>16</sup> nagusitzen da, eta zehazki ekonomia sozialari egiten dio aipamen zuzena azpimarratzekoa da, hau baita berrikuntza bereizgarriena. Ekonomia sozialari aipamen zehatza egiteak, harreman hauen

---

<sup>13</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea.

<sup>14</sup> Gipuzkoako Ekonomia Soziala bultzatzeari buruzko abenduaren 10ko 15/2014 Foru Araua.

<sup>15</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea: 8.art.

<sup>16</sup> Kontratazio Publikoari buruzko, azaroaren 8ko 9/2017 Legea.

erregulazioa errazten du, botere publikoek ekonomia sozialeko erakundeei lehen mailako inportantzia ematen dielako.

Funtsean, bi legedi hauek dira aztertu beharrekoak eredu komunitarioa ahalik eta hobekien ulertzeko, bai eredu komunitarioan duen ekonomia sozialaren izaera eta baita honen funtzionamendua ulertzeko.

## **2.1 Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea.**

### *2.1.1 Legearen azterketa.*

Espainia mailan ekonomia sozial eta solidarioa xedatzen duen lege nagusia Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legea da. Gizartean jarduera ekonomikoak burutzeko ekonomia sozialeko erakunde ezberdin asko proposatzeaz gain (kooperatiba, fundazioa, elkarte eta mutualitateak nagusienak dira), lege honen bitartez ekonomia sozialaren baldintzak eta printzipio nagusiak beteko dituzten erakunde mota ugari barneratzen ditu.

Espazio bat auzotarren elkarteak autokudeatzeko garaian, ekonomia sozialaren printzipioak kontuan hartuko dira, non balore berritzaileen eta aurrerakoienak erabiliko diren. Solidaritate baloreak lehenetsiko dira, Gizarte Ekonomiaren legeak<sup>17</sup> xedatzen duen gisa. Hala ere, garatzen doazen printzipio eta baloreak diren heinean, praktikan badira eztabaidagarriak izan daitezkeen aspektu batzuk; jarduera ekonomikoaren baldintza adibidez. Bigarrenik, legeak baldintza sozialak beteko dituen erakunde oro legean barneratu eta babesten du. Beraz, ekonomia soziala benetan babesteko asmoak zalantzan jarri dira.

Ekonomia sozialak bere jatorria XIX.mendeko industrializazio garaian du. Lan baldintza kaxkarrak eta soldata baxuek langileen haserrea piztu eta egoera sozial eta batez ere ekonomikoei irtenbide bat emateko asmoz elkartu ziren, langileen lehen elkarteak eratuz. Funtsean, elkarteen bilakaeraren hasiera modura ulertzen dira urte hauek. Denboran zehar, elkarteen garapenak ideologia eta mugimendu berriak barneratu zituzten, ekonomia sozialaren oinarriak sendotuz. (Paniagua, 2011)

Egun, gizarteak ekonomia eredu berriei harrera egin die, ekonomia tradizionalaren beherakada dela eta. Gainera, kontuan izan, faktore ugari direla gizartearen jarrera aldaketa hau eragin dutenak. Faktore horietako nagusiena eta denboran gertuena azken

---

<sup>17</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea.

hamarkadako krisi ekonomikoa izan da. Bestalde, azken urteotan, ingurugiroari garrantzi berezia eman zaio jarduera ekonomikoak burutzeko garaian. Aldi berean, ekonomia sozialak gizartean garatutako behar asko asetzeko gai izan da, besteak beste; gizartean baztertutako kolektiboen integrazioa bultzatu du eta pobrezia aurka egiteko mugimendu sozial nagusia da.

Gizarte Ekonomiari buruzko legearen bigarren artikulua<sup>18</sup> ekonomia sozialaren definizioa xedatzen du; *“Se denomina economía social al conjunto de las actividades económicas y empresariales, que en el ámbito privado llevan a cabo aquellas entidades que, de conformidad con los principios recogidos en el artículo 4, persiguen bien el interés colectivo de sus integrantes, bien el interés general económico o social, o ambos.”*

Funtsean, ekonomia soziala ez da jarduera ekonomikoan soilik zehazten baizik eta jarduera ekonomiko hau egiteko moduan jarri behar da arreta handiena. Bere balore eta printzipioak jarraituz eta babestuz jardungo duen enpresek osatuko dute ekonomia soziala: *“La economía social es por tanto una forma peculiar de desarrollar la actividad empresariales, un “modelo de empresa propia” como dice el parlamento”* (Fajardo, 2012: 71.orr)

Gizarte Ekonomiaren Legeak 4.artikulan<sup>19</sup> jasotzen ditu ekonomia sozial eta solidarioaren printzipio nagusiak. Printzipio hauen jatorria, Europako 2002ko Kooperatiba, Mutualitate, Elkarte eta Fundazioen inguruko konferentzian, egindako ekonomia sozialaren printzipioen gutunean dago. Hala ere, Espainia mailan Kooperatiben 1999ko Legeak<sup>20</sup> Ekonomia Sozialerako Sustapen Kontseilua sortzen du bigarren xedapen gehigarrian. (Padilla, 2011).

Lehen printzipioari dagokionean, pertsona da ardatz nagusia; jarduera ekonomiko eta irabazi ekonomikoen gainetik pertsonen interes eta ongizatea lehenesten da. Pertsonak solidaritatez eta erantzukizunez jardungo dute. Bigarren printzipio nagusia, helburu eta garapen soziala da eta honekin batera, ingurugiroa babesteko ardura lehen mailako da. Horretarako, jarduera ekonomikoaren irabaziak lan taldearen interes eta beharrak asetzeko erabiliko dira. Hurrengo printzipioa, solidaritatea da: beste printzipio guztiak barneratzen dituen oinarria. Printzipio bat baino gehiago dela esan daiteke, ekonomia

---

<sup>18</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea; 2.art.

<sup>19</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea: 4.art.

<sup>20</sup> Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legea: 2.xedapen gehigarria.



soziala ulertzeko modu bakarra. Azkenik, laugarren printzipio gisa, ekonomia sozialeko erakundeek botere publikoekiko duten independentzia aipatu behar da. Ekonomia sozialeko erakundeak botere publikoetatik at jardungo dute. Hala ere, azken printzipio honen harira, eztabaida ugari sortu dira, printzipioa bera ez dagoelako erabat zehaztuta. Hutsune juridiko honek, praktikan zalantza ezberdinak eratu ditu, askotan botere publiko eta ekonomia sozialeko erakunde ezberdinekin harremanak egon baitira, diru laguntzei dagokienez edota hitzarmen ezberdinak eman direnean. (Paniagua, 2011)

Printzipioek ekonomia sozialaren esentzia erakusten du, baina zehaztasun falta handia da. Europako Parlamentuak idatzitako gutunean jaso ziren printzipioetan du jatorria baina Espainiako legean ez datoz erabat berdin jasota, erredakzioari eta egiturari dagokionean. Beraz, zehaztasun falta honek nahasmen eta eztabaidagarriak izan daitezkeen aspektu interpretatiboak eta juridikoak azaleratu ditu. (Fajardo, 2012)

Azkenik, legearen 8.artikuluak<sup>21</sup> administrazio publikoen ardura arautzen du. Ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak sustatuko dira, neurri ezberdinak hartuaz eta oztopo eta trabarik jarri gabe. Ekonomia ulertzeko modu berriak garatzeko garaian, botere publikoen proposamen ezberdinek eragin zuzena dute. Ekonomia eredu berriztagarrienak eraginkorrak izaten lagundu behar dute, akzio soziala ahaztu gabe aberastasun ekonomia lortzeko. (Padilla, 2011)

### *2.1.2 Jarduera ekonomikoaren baldintza. Gizarte Ekonomiaren legearen 5.artikulua.*

Gizarte Ekonomiari buruzko legearen 5.artikuluak<sup>22</sup> jarduera ekonomikoa burutzeko baldintza xedatzen du;“ [...] 1. *Forman parte de la economía social las cooperativas, las mutualidades, las fundaciones y las asociaciones que lleven a cabo actividad económica, las sociedades laborales, las empresas de inserción, los centros especiales de empleo, las cofradías de pescadores, las sociedades agrarias de transformación y las entidades singulares creadas por normas específicas que se rijan por los principios establecidos en el artículo anterior. [...]*”

Ezinbesteko baldintza gisa ulertzen da jarduera ekonomikoa burutzea. Nahiz eta helburu sozial zehatza asetzeko jarduera izan, helburu ekonomikoa izango du. Era berean,

---

<sup>21</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea: 8.art.

<sup>22</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea; 5.art.

aipatutakoaz gain, artikuluari erreparatuz gero, eztabaidagarria den bigarren aspektu bat aipatu daiteke: legeak bereizketa esanguratsu bat egiten baitu: lehenik eta behin, ekonomia sozialaren barne dauden erakundeak aipatzen ditu legeak (kooperatibak, mutualitateak, elkarteak, fundazioa...). Eta bigarrenik, ekonomia sozialaren printzipioak beteko dituzten erakundeei erreferentzia egiten die. (Padilla, 2011)

Jarduera ekonomikoari dagokionez, eztabaida zabala da. Jarduera ekonomikoari egindako aipamena oso mugatua delako, eta aspektu ugari xehatu behar direlako. Jarduera ekonomikoaren kontzeptu bera ez da definitzen. Azken finean, ekonomia sozialaren printzipioak beteko dituen erakunde orok jarduera ekonomiko bat burutu behar duela soilik ulertzen da. Adibideei erreparatuz gero, hiri baratzei dagokionean, jarduera ekonomiko gisa ulertu daiteke, non lan bat burutzen den eta bertako ekoizkinak jasotzen diren. Aldiz, beste ikuspuntu batetik aztertuz gero, lur baten ustiapena eta honen aprobetxamenduan mugatzen dela esan daiteke, inongo benetako jarduera ekonomiko egonkorrik ez dagoela ulertuz.

Eztabaidatzeko bigarren elementua 5.artikuluaren<sup>23</sup> bigarren parrafoan dago. Lege berdineko 2.artikuluari<sup>24</sup> lotuta, hutsune juridikoa dago. Ekonomia sozialeko enpresa bat ez den erakunde batek baldintza sozial eta solidarioak betez gero, legearen babes jasoko du. Hortaz, esan daiteke erakunde orok, baldintza sozial eta solidarioak beteko dituenak, ekonomia sozialeko erakunde baten aukera berdina izango dituela, eta babes juridiko berdina jasoko ditu legearen arabera. Botere publikoen joera politiko ezberdina ikusgai dira eztabaida honetan; batzuek baldintza sozialak beteko dituzten enpresa handienganako apustua egingo dute. Beste batzuek aldiz, ekonomia sozialeko erakunde ezberdinei ematen die protagonismo osoa, enpresa eredu berriak erabiliz eta iniziatiba eta mugimendu xumeagoak bultzatuz.

Funtsean, eztabaida honako hau da; ekonomia soziala sustatzeko garaian, ekonomia sozialeko erakunde eta ingurumen eta baldintza sozialak egoki beteko dituen beste edozein erakunde egoera berdinean dagoela legearen aurrean, babes juridiko berdina jasoko dutela alegia. Kritika hauei erantzuna emanez, jarduera ekonomikotik eratorritako irabazien helburua zehaztea funtsezkoa izango da adituen arabera. Hortaz, irabaziak zein helburu asetuko duen aztertzeak ezinbesteko garrantzia du ekonomia

---

<sup>23</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea; 5.II.art.

<sup>24</sup> Gizarte Ekonomiaren, martxoaren 29ko 5/2011 Legea; 2.art.

sozialaren ikuspegitik. Irabaziak ekonomia sozialeko printzipio eta konpromisuetara bideratu beharko dira edozein delarik erakundea. (Paniagua, 2011).

## **2.2 Kontratazio Publikoari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea.**

Ekonomia sozialeko erakunde batek espazio publiko bat autokudeatzeko asmoa duenean, botere publikoekin duen independentzia kolokan jartzen da. Hortaz, sortutako harremana zehaztu eta erregulatuko da. Kontratazio publikoaren lege berriak<sup>25</sup>, aurrerapauso handia suposatu du gai honen inguruan, ekonomia sozialeko erakundeei aipamen zuzena egiten baitio.

Ekonomia sozialari egindako aipamenak, Europar Batasuneko 24/2014<sup>26</sup> direktiban du jatorria, bertan jasotzen direlako lehen aldiz, botere publikoen kontratazio eremuko lehen izaera sozialeko eta ingurugiroari dagozkien klausulak.

### *2.2.1 Kontratazio publiko arduratsua.*

Kontratazio publikoaren lege berriak, ekonomia sozialeko enpresei babes juridikoa emateaz gain, kontratazio publiko arduratsua eskatzen du. Kontratazio publiko arduratsuak, enpresak kontzientzia bai soziala eta baita ingurugirokoa izatea da, kontratazio ereduak aldatzea sustatuz. Ikuspegi berritzailea da, alde betetik eta batez ere, perspektiba soziala gailentzen delako. Eta beste aldetik, panorama ekonomikoan eredu berritzaileagok bultzatuko dira.

Enpresak eta hauen jarduerak eragin handia du ekonomian, eta kohesio soziala eta gizartean islatuta azaltzen dira. Enpresak eta hauen botere ekonomikoek gizarte ereduak zehazten dituztela esan daiteke. Horregatik, enpresek joerak aldatu egin behar dituzte eta horretarako, ezinbestekoa da botere publikoen parte hartzea eta sustapena. Administrazio publikoen ardura da ekonomia eredu sozialagoak bultzatzea, hauen inguruko obligazio edota baldintzak xedatuz. Ardura soziala bilatzeaz gain, ekonomia eraginkor eta aberats bat lortzeko bidea da.

Enpresen jarduteko modua da berritu behar den alderdia: *“Es este un modelo reforzado desde la revolución industrial, que cumplió un objetivo, como es el de centrar la gestión empresarial en la búsqueda del resultado positivo, porque desde él podría desarrollarse y crearse la riqueza social. Modelo que se está cuestionando no tanto por*

---

<sup>25</sup> Kontratazio publikoari buruzko, azaroaren 8ko 9/2017 Legea.

<sup>26</sup> EBeko 24/2014 Zuzentaraua.

*el principio en sí (nadie duda de que la empresa ha de ganar dinero), cuanto por la forma de realizarlo.” (De Castro, 2005: 30.orr)*

Kontratazio publikoaren joera berriekin, gizartearekiko erantzukizuna handitu egin da, eta ingurugiro eta aspektu sozialak lehen mailako baldintza gisa jaso nahi izan dira. Ekonomia sozialeko erakundeekin kontratu publikoak egitera bultzatzea da asmo nagusia, gertukoak diren ekonomia ereduak garatzeko. Gainera, gizartearekin konpromiso bat izateaz gain, botere publikoekin gertukoagoa den erlazio bat bilatzen da, konfiantzazko eta estuagoa den harremana. Auzoetako bizilagunek edota hiritarrek dituzten beharrak asetzeko bidea da, kontratazio eredu berriak erabiliz. Hortaz, lege berri hau, faktore eraldatzaile handia izan daiteke, modu egokian aplikatu ezker. (Lesmes, 2018)

Legeari erreparatu ezker, garbi dago hemendik aurrera administrazio publikoek bai ingurumen eta baita aspektu sozialak ere kontuan hartu beharko dituztela, garrantzi berezia emanez. Eta honek era zuzenean erantzukizun handiagoko kontratazio publiko bat eratzen du. Honen harira, Kontratazio publikoaren lege berriak, kontratuaren objektua definitzeko unean erreferentzia zuzena egiten dio aipatutakoari bere 99.artikuluari:<sup>27</sup> “[...] *En especial, se definirán de este modo en aquellos contratos en los que se estime que pueden incorporarse innovaciones tecnológicas, sociales o ambientales que mejoren la eficiencia y sostenibilidad de los bienes, obras o servicios que se contraten.*”

Bestalde, Legeak ez dio erreferentzia garbirik egiten espazioen kudeaketarako eredu komunitarioari. Garatzen ari den fenomeno izateaz gain, oraindik aspektu oso zehatza den heinean, ez du erregulaziorik jaso. Hala ere, eredu komunitarioa ekonomia sozialaren barnean dagoela kontuan hartuta, lege honek aurrera pauso handia suposatzen duela garbi dago. Ekonomia txikiagoei eta batez ere, ekonomia sozialeko erakundeekin kontratuak egiteko sustapena garbia da. Honekin batera aipatzekoa da, ekonomia soziala bermatzeko asmoz, legeak berak bere 48.xedapen gehigarriaren arabera<sup>28</sup>, kontratu batzuk eratzeko unean ekonomia sozialeko erakundeei zuzenean esleitzeko aukera luzatzen duela, erreserba moduan. Joera aldaketa nabaria denaren adibidea dela esan daiteke.

---

<sup>27</sup> Kontratazio Publikoari buruzko, azaroaren 8ko 9/2017 Legea: 99.1.art.

<sup>28</sup> Kontratazio Publikoari buruzko, azaroaren 8ko 9/2017 Legea: 48.xedapen gehigarria.

### 2.2.2 *Ekonomia sozialari aipamen zuzena eta klausula sozialak.*

Klausula sozialen jatorria ezagutzeko Europarako 24/2014ko direktiba hartu behar da erreferentzia nagusi gisa. Gizarteko tendentzia sozial berriek eragin zuzena izan dute ekonomia eta honen funtzionamendua ulertzeko moduan. Ideologia eta eredu berri hauek botere publikoetaraino iritsi dira, legeen aldaketak ekarriz. Honela, kontratazio publikoaren arloan kriterio aldaketa ezberdinak ezarri dira direktiba honen bitartez. Kriterio berri hauek elementu ugari arautzen dituzte, besteak beste; ingurugiroa, genero berdintasuna, ondarearen babesa... Bestalde, aipatzekoa da klausula hauek ez direla obligazio gisa xedatzen direktiban, eta europar batasuneko estatuek beraien borondatez erabakiko dute kontratazio publiko berri honen eredua jarraitzea ala ez. Aipatu gisa, Espainiako kasuan kontratazio publikoko<sup>29</sup> lege berriak, direktiba honen irizpideak aintzat hartu ditu.

Zehazki zuzentaraueko 18.artikulari<sup>30</sup> erreparatu behar zaio. Artikuluko bigarren paragrafoak kontratazio publikoan aintzat hartuko diren printzipioak arautzen ditu: *“Los Estados miembros tomarán las medidas pertinentes para garantizar que, en la ejecución de contratos públicos, los operadores económicos cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral establecidas en el Derecho de la Unión, el Derecho nacional, los convenios colectivos o por las disposiciones de Derecho internacional medioambiental, social y laboral enumeradas en el anexo X.”*

Era berean, klausulez gain, artikularen lehen paragrafoan ekonomia sozialaren beste hainbat printzipio aipatzen dira. Azken finean, kontratu publiko bat esleitzeko garaian, ezingo da inolako diskriminaziorik egon eta berdintasun baldintzak bete beharko dira. Gainera, kudeaketa demokratikoaren ardatzak jarraitu behar dira, non kontratuak esleitzeko dituzten botere publikoek gardentasunez joka beharko dute.

Honetaz, gain, artikulua hau direktiba berdineko 56.1 artikularekin<sup>31</sup> batera ulertu behar da; erlazio bereizgarria da. Ingurugiroari dagozkion eta aspektu sozialeko klausulak

---

<sup>29</sup> Kontratazio Publikoari buruko, azaroaren 8ko 9/2017 Legea.

<sup>30</sup> EB eko 24/2014 Zuzentaraua: 18.2.art.

<sup>31</sup> EB eko 24/2014 Zuzentaraua: 56.1 art.

beteko dituen erakunde bat, ekonomikoki hobegoa den kontratu baten eskaintzaren aurrean gailendu egingo da.

Europa mailako direktibak, Espainia mailako kontratazio publikoari buruzko legean aldaketa nabarmenak ekarri ditu, ekonomia sozialeko erakundeei harrera eginez eta garrantzi berezia emanez. Gizartean garatzen ari diren pentsaera eta ekonomia ulertzeko joera berriek, botere publikoen jardura ere aldatzera ekarri dute. Ingurumeneko eta gizartearekiko onura ekartzen duten kriterio berri hauen, panorama berriztatzailea eskaintzen du, non, ekonomiaren bilakaera gizartearekin batera joango den. Aldi berean, politika egiteko modu berriak zabaltzen dira, erabaki publikoetan baldintza berri hauek kontuan hartu beharrekoak direlako.

Ondorioz, aztertutakoa kontuan izanda, ingurumen, berrikuntza eta izaera sozialeko joerak aintzat hartuko dira hemendik aurrera. Joera berri hauek Espainia mailako legearen 202.artikuluak<sup>32</sup> xedatu ditu, kontratu bat betetzeko garaian kontuan hartuko direnak. Hala ere, kontratuaren betetzeaz ez ezik, esleipenari dagokionean ere badira izaera sozial eta ingurugiroaren arloko klausulak, 145.artikuluaren<sup>33</sup> arabera.

Hala ere, direktiban jasotako klausula sozialak modu ezberdinetan azaldu daitezke legean. Lehenik eta behin kontratuaren objektu gisa jaso daitezke ingurugiroa errespetatzea eta helburu sozialeko betebeharrak. Honako hauek, esan daitezke, objektuan bertan jasota datozen heinean, eraginkorrenak direla ekonomia sozialaren ikuspegitik. Kontratuaren objektuak berak, helburu sozial bat betetzen duelako. Bestalde, posible da klausula soziala erabat definituta ez azaltzea kontratuan, baina debekuak xedatzea kontratuan bertan, helburu sozialak errespetatu daitezen. Multzo honetan ere, modalitate askotako klausulak aurki daitezke: kondizioak kontratuaren exekuzioan ezartzen direnean, kontratuaren esleipenean edota baldintza tekniko gisa. (Diez, 2017)

Espainia mailako legeari dagokionean, lege berriak (9/2017), kontratu publikoak xedatzeko unean, ardura soziala izateaz gain, ekonomia sozialeko erakundeak lehenesten ditu. Ekonomia sozialari egindako aipamen zuzena, legearen 1.3. artikuluan<sup>34</sup> xedatzen da, legearen objektua eta aplikazio eremu definitzeko garaian; “3. *En toda contratación pública se incorporarán de manera transversal y preceptiva criterios sociales y*

---

<sup>32</sup> Kontratazio Publikoari buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legea: 202.art.

<sup>33</sup> Kontratazio Publikoari buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legea: 145.art.

<sup>34</sup> Kontratazio Publikoari buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legea: 1.3.art.

*medioambientales siempre que guarde relación con el objeto del contrato, en la convicción de que su inclusión proporciona una mejor relación calidad-precio en la prestación contractual, así como una mayor y mejor eficiencia en la utilización de los fondos públicos. Igualmente se facilitará el acceso a la contratación pública de las pequeñas y medianas empresas, así como de las empresas de economía social.”*

### **3. ULIAKO LORE BARATZAK: KASUAREN AZTERKETA.**

Ekonomia sozial eta solidarioak gizartean garatzen ari diren idea berriztagarriak errealitatera eramaten laguntzen du. Ideia hauek gertuko hiri eta auzoetan izan duten bilakaera nabarmena da eta adibideak ugari dira. Ekonomia sozialaren gaia oso zabala da, eta erakunde mota ugari aztertzeko aukera dago. Gainera, jakina da Euskal Autonomia Erkidegoan kooperatibismoak duen protagonismoa handia dela. Hala ere, auzo eta hiri mailetako eredu berrietan zentratuz gero, eta batez ere bizilagunen kudeaketa komunitarioan, geroz eta gehiago dira martxan jarri diren ekimen ezberdinak. Azken urteotan, ekonomia sozialaren munduko beste hainbat egitasmo ugari sortu dira, euskal kooperatibismo handiaren arlo zabaletik at dauden ekimen txikiagoak. Indarrean dauden pentsaera eta bizimodu ezberdinek auzo mugimendu asko sorrarazi dituzte, auzoetan ekonomia sozialeko erakundeen bidez ekonomia eredu berriei ateak irekiz.

Gizartean hirien berdegune eta batez ere, ingurumen arloko kontzientzia asko garatu da azken hamarkadan. Honek, auzotarrek nahi izaten duten bizimodu eta sozialagoak diren hiri eredu berriak isladatu ditu. Hirietako berdeguneekiko ardura geroz eta sendoagoa da gizartean aipatutako kontzientzia berrien harira, eta honek, hiri mailan ere naturaz gozatzeko aukera ematen du. Hirietako berdeguneen artean ere, badira parke eredu ezberdinak, eta hau kontuan hartzekoa da. Ekonomia sozialaren ikuspegitik, kudeaketa komunitarioan oinarritzen diren berdeguneak dira auzoari identitatea eta indarra emateko baliabide bat, non bizilagunek beraien espazio berdearen mantentzea eta zaintza burutuko duten, elkarren arteko kolaborazio eta erantzukizunez.

Honen harira, auzotarren bidez autokudeatutako espazio baten adibideetako bat Uliako Lore Baratzen proiektua da. Donostia hiriko Uliako Lore Baratzak Ingurugiro Elkarrekin burututako egitasmoa, natura ikuspegi eta baita kultura arlotik aberatsa den lurzoruan egin nahi ziren etxebizitzaren eraikitze-planaren aurka jaio zen. Gestio komunitarioa oinarri gisa hartuta martxan dabilen proiektua da, bere oinarrian helburu ekologiko eta kudeaketa parte hartzailea duena. Bestalde, aldi berean, auzo kohesio eta

inklusiboari hauspo egiten zaio, ekonomia partehartzailea ardatz delarik. Egun, Donostia hirian aurki dezakegun berdegune handia osatzen du proiektuak, hiri nekazaritza eta agro-ekologiari lehen mailako garrantzia ematen diona. Hortaz, bi dira barneratzen dituen ideia nagusiak: kudeaketa komunitarioa eta kontzientzia ekologikoa.

Kasu zehatz honen azterketa egiteko unean, ohikoa den problematika hauteman daiteke: izaeraz publikoa den espazio baten kudeaketa lortzeko ahaleginak. Uliako Lore Baratzen proiektua Donostiako Udalaren jabegokoa den partzelan kokatuta egoteak, erronka handiak suposatu dizkio ekimenari. Izaera publikoa duen espazioan Uliako bizilagunek lurzoruaren gainean erabakiak hartzeko eskubidea aldarrikatu dute, modu komunitarioan auzotarren arteko hiri nekazaritza eta bizikidetasun proiektu bat sortuz.

Uliako Lore Baratzen egitasmoak honela definitzen du burututako jarduerak: *“Lore-Baratza komunitarioak hiri nekazaritza oinarritzko jarduera bezala duten gizarte-elkarrekintza gune publikoak dira.”* (ULBen txostena, 2017:1.orr)

### **3.1 Ideiaren jatorria.**

Uliako Lore Baratzak, bertan Donostiako Udalak etxebizitzak eraikitzeko plana ekiditeko eta parkea babesteko sortu zen. 2008.urtea arte Donostia hirirako parke eta lorategietarako landareak ustiatzeko ur biltegi zaharrak (*Soroborda* eta *Buskando*) bertan zeuden kokatuta. Eta hauek berdegune zabala osatzen duen partzela baten azpian daude kokatuta. 2008tik aurrera, ur biltegiak beraien funtzioa bete eta Donostiako udalak erabilpenik gabe utzi zituen. Honen harira, ur mintegi zaharren eraistea zen hasiera batean Donostiako udaletxeak hartu zuen erabakia 30 etxebizitza eraikitzeko plana abian jarritz; plan honek partzelaren zati handi baten eraisketa zekarren. Era berean, luxuzko etxebizitzak eraikitzeko plana zela nabarmendu behar da. Hori dela eta, eraikitze plan honen aurka Uliako Bizilagunek Udalaren jarrera arduragabekoa zela aldarrikatu zuten, ur biltegi zaharren eraisketaren aurka azalduz eta babes beharrezkoa zela iragarri zuten.

Ur biltegi zaharrez gain, berdegune handi bat babestea ere helburu zuten auzotarrek, bertako negutegi eta mintegiak aurkitzen baitziren. Hori dela eta, Uliako Auzo Elkarteak partzelaren ezaugarriak eta ingurumen arloko abantailak kontuan hartuta,



hiri nekazaritza proiektua aurkeztu zuen, bizilagunen bidez autokudeatutako baratza-lorategia sortuz.<sup>35</sup>

Egitasmoa ulertzeko garaian bi dira aztertu beharreko ikuspegi nagusiak. Alde batetik, ekologia eta ingurumenari dagokion lana da, egitasmoaren motor gisa ulertu behar dena. Nabarmena da, ekologia aldetik bereizgarria den proiektua dela Uliako Lore Baratzena. Azken finean, Uliako mendi magalean kokatuta dagoen eremu berde zabala da (14.400m<sup>2</sup>) eta natura ikuspegitik oso aberatsa. Ekimen ugari jarri dira martxan natura balio hau aldarrikatzeko, bertako landare eta animalien azterketa sakona egin delarik. Egun, jarduera eta kudeaketa komunitarioren oinarriak jarraituz baratza komunitarioa egiten da.<sup>36</sup>

Bestalde, bigarren ikuspegia, ikuspegi soziala edota kulturala da. Ur biltegi zaharrak, ondare bereizgarria dira Donostiako hirian. Hortaz, aspektu ekologikoaz gain ur biltegi zahar huek mantentzeko ahaleginak etengabekoak izan dira. Bizilagunek zona berdea errespetatzeaz gain, historian zehar garrantzi handiko ur biltegiak ondasun historiko gisa aldarrikatzea eskatu dute. Uliako udal biltegiak, XIX.mendeko (1871-1895.urteak) dira, 2008.urte arte martxan aritu zirenak. Lehenengoa, *Sorobordako* ur mintegia, 1869.urtekoa da eta bigarrena aldiz, *Buskando*, 1899.urtean eraiki zen Donostiako demografia igoera dela eta.<sup>37</sup>

Nahiz eta 2008tik aurrera jarduerarik gabeko eremua bilakatu, Donostia hiriaren ondare historia dela ulertu behar da, hauek bait dira Donostian eraiki ziren lehen ur biltegiak. Hiriaren bilakaera ulertzeko ezinbestekoak diren ondare historikoa osatzen dute, eta horregatik bertan etxebizitzak egitea arduragabekeria bat zela adierazi zuten Uliako auzotarrek. Egun, *Buskando* ur mintegia egoera onean aurkitzen denez, eta Donostia hiriko uraren interpretazio eta historia ulertzeko aukera ezin hobeagoa denez g, hauek ezagutzeko aukera luzatu dute auzotarrek, bisita gidatuak eskainiz. Hortaz, antzeman daiteke, baratza eta lorategiaz gain, hau da ingurumen arloaz gain, ondasun

---

<sup>35</sup><https://uliakolorebaratzak.wordpress.com/uliako-lore-baratzak-proiektua-2/> (2019ko apirilean begiratuta)

<sup>36</sup> <https://uliakolorebaratzak.wordpress.com/fauna-eta-flora/> (2019ko apirilean begiratuta)

<sup>37</sup> Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Berezia: 2.2. ordenantza partikularrak.

historiko baten babesaren defendatua dela egitasmoan, arlo kultural eta sozialari bere garrantzia emanez.<sup>38</sup>

2013. urtetik aurrera Uliako Auzo Elkartearen eskutik espazioaren eraisketa ekiditeko, Donostiako udalari espazioaren kudeaketarako proiektu komunitarioa aurkeztu zitzaion. Baratza komunitarioaren ideia nagusia jorratu zen eta proiektuak garapen handia izan zuen heinean, parkearen irekiera eskatu zitzaion etengabe udal gobernari. Leire Rodriguez, ULBen ingurugiro elkartearen lehendakariaren esanetan, ildo eta joera politikoen parkearen irekiera asko zaildu zuten, eta horren ondorioz, egun zehatzetan ate irekien jardunaldiak egiten hasi ziren garatutako proiektua ezagutarazteko. Azkenik, 2014ko konkurtso publikoari esker, Uliako Lore Baratza proiektuak parkearen kudeaketa eta zaintzarako baimena lortu zuen. (Rodriguez, L., elkarrizketa, 2019ko apirilaren 20ean)

Horrela, Donostia hiri mailako zona berde handi batean hiri nekazaritza eta elkarbizitza modu komunitarioan landuko duen egitasmo bat garatu da. Gizarte parte hartzaile eta auzo mugimenduaren adibide garbi bat eratuz. Espazio publikoari erabilera ezberdinak emateko aukera ikusi da, non herritarrak entzunak izan diren.<sup>39</sup>

### **3.2 Uliako Lore Baratzen Ingurugiro elkartearen Espazioaren autokudeaketa.**

Uliako Lore Baratzen egitasmoak bere hastapenak Uliako Auzo Elkartearen eskutik martxan jarri zituen. Hala ere, proiektuaren garapen eta zabalkunde berak Uliako Lore Baratzen kudeaketa autonomia sorrarazi du; horrela 2017. urtetik aurrera Uliako Lore Baratzen Ingurugiro elkarteak du kudeaketa ardura osoa.

Uliako Lore baratzen funtzionamendua eta egiturari dagokionean, garatzen doan zerbait dela adierazi behar da. Proiektua bera garatzen doan heinean, kudeaketa zehatzagoa dela ulertuz. Komisio bidez antolatuta dagoen egitura bat da, non talde motorrak ardura handiena duen. Parte hartze eta proiektuaren jarraipenaren harira sortutako talde zentral gisa aldarrikatzen da. Bestalde, badira jardura ezberdinak garatzen dituzten talde ezberdinak. Lehenik eta behin, baratza komunitarioan lan egingo

---

<sup>38</sup><https://uliakolorebaratzak.wordpress.com/xix-mendeko-ur-biltegiak/> (2019ko apirilean begiratuta)

<sup>39</sup><http://naider.com/claves-del-modelo-de-innovacion-social-del-barrio-de-ulia-donostia/> (2019ko martxoan begiratuta)

duten taldea dago eta bigarrenik, proiektua ezagutarazteko komunikazioaz arduratuko da beste bat. Honen harira, sare sozialen bidez egin den lana azpimarratzekoa da. Bestalde, bazkideen artean buletinak banatzen dira parkearen egoera egunerokotasunean jarraitu ahal izateko. Azkenik, haurrekin jarduerak burutzeko talde bat sortu da, familia ugari elkartzeko aukera dena. (Rodríguez, L., elkarrizketa, 2019ko apirilaren 20ean)

Aipatu gisa berdegune handi baten kudeaketaz arduratzen da ULBen ingurugiro elkarteak. Lurzoruan mintegietako parte ziren negutegiak aurki daitezke, baita Banbuzko basoa edota almagaren eta parkearen sarrera ezberdinak emango dizkion ate bereizgarriak. Hortaz, interes berdeko gunea dela ondorioztatu daiteke. (ULB txostena, 2017)

Irabazi asmorik gabeko proiektu bat da, ez da jarduera ekonomikorik burutzen. Bizilagunen borondatearen bidez autokudeatzen den berdegune bat da. Elkartzeko eta bizitzeko eremu gisa kontsideratzen da, hiri mailako espazio publikoei beste erabilera mota bat emanez, erabilera sozialago bat, auzotarren interesak gailenduko direlarik.

*“Tanto la asociación como el proyecto no tiene ningún afán de lucro, por lo que todas las subvenciones solicitadas se utilizan para cubrir los gastos mínimo que un proyecto de estas características genera.”* (ULB txostena, 2017:33.orr)

Finantzaketari dagokionez, 2015.urtea arte Foru Aldundiaren eskutik lortu zen finantzaketa eta urte hartatik aurrera egun arte, Donostiako Udalaren diru laguntzaren bidez hornitzen da proiektua. Jasotako diru hau bi helburu zehatzetarako bideratuta dago: alde batetik, parkearen zaintza eta mantenturako 2000 euroko diru laguntza jasotzen du egitasmoak, eta beste aldetik, Uliako Lore Baratzen proiektua bera garatu eta zehazteko beste 2000 eskuratu dituzte. Gainera, proiektuaren historian zehar, momentu zehatzetan diru sarrera ezberdinak egon dira: horien artean 2016ko Eusko Jaurlaritzaren Elkarlan saria jaso zuen ULBek eta Patagonia markak emandako saria ere aipatzekoa da. Besteak beste, Camargo-ko udalak ere sari moduan emandako diru ekarpenak asko lagundu zuen. (Rodríguez, L., elkarrizketa, 2019ko apirilaren 20ean)

Aztertze dagoen ezinbesteko beste alderdia, Uliako Lore Baratzak Donostiako Udalarekin duen harremana da. Izaeraz publikoa den espazio bat dela azpimarratu behar da, eta honek udal gobernuarekin derrigorrezko harreman bat suposatzen du. Erronka handiena hau izan dela antzeman daiteke. Honen harira ohartaraziko da Uliako Lore Baratzek, 2014ean izandako lehiaketa publiko bidez, parkearen zaintza eta kudeaketarako

baimena lortu zutela. Hala ere, ekimen ugari burutu izan dira, proiektuak sinesgarritasuna duela adierazteko, eta lana etengabekoa da egun arte.<sup>40</sup>

### **3.3 Konkurtso Publikoa eta Donostiako udalarekin harremana.**

#### *3.3.1 Konkurtso publikoa. Kontratu publikoa eskuratu.*

Uliako bizilagunek Donostiako udalarekin duten harremana ulertzeko lehenik eta behin espazio publiko baten kudeaketa komunitarioa da aztertu beharreko gaia. Aintzat hartu behar da, autokudeatzen duten lurzorua izaeraz publikoa dela, hau da, udalaren ondarearen jabegoan dagoela. Behin ur biltegi zaharrak beraien funtzioa betetzeari utzi ziotenean, udalak etxebizitzak egiteko asmoa adierazi zuen. Udalak proposamen hau bideragarria zela azaldu zuen, jabego publikokoa izateaz gain, Hira Antolatzeko Plan Orokorrean<sup>41</sup> partzela urbanizagarri gisa jasota zetorrelako.

2014. urtea arte Uliako Lore Baratzen egitasmoak jardunaldi eta ekimen ugari burutu zituen etxebizitzaren proiektua atzera botatzeko, udaletxeak parkearen zaintza konkurtsora atera zuen arte. Lurzorua ez urbanizagarria zela aldarrikatzeko eta parke izaera babestea eskatu zen behin eta berriz. Axolagabekeria izango litzake bertan etxebizitzak egitea, landa mota ugari eta animalien bizilekua mugatzeko arriskua handia zelako.

Udal gobernuak proposatutako hirigintza planari aurre egiteko garaian, Uliako bizilagunek partzelaren aberasgarritasuna aldarrikatu zuten. Balio natural bereizgarria duen eremu zabala da, eta gainera balio historikoa eta kulturala nabarmentzen dira, XIX. mendeko ur biltegi zaharren ondareetatik. Orokorrean, paisaia naturalaren errespetatzea aldarrikatzen da, eta etxebizitza eraikitzeke beste eremu egokiago bat bilatzeko eskaera egin zuten.

Uliako parkeari erreferentzia egiteko unean, lurzoruaren ezaugarriak balio natural handiko espazio bat dela ziurtatzen dute. Hala ere, auzoak parke izaera erabileraren bidez eman dio urteen poderioz. Bertako jendea biltzeko eta elkartzeko lekua izan da, hirietan aurki daitezkeen beste parkeen modura. Hori dela eta zaila da bertan etxebizitzak egiteko proiektua bideragarria dela ulertzea. Era berean, etxebizitzaren proiektuak aurrera joanez

---

<sup>40</sup> <https://uliakolorebaratzak.wordpress.com/parkearen-jatorria/donostiako-udala/> (2019ko apirilean begiratuta)

<sup>41</sup> Hiria Antolatzeko Plan Orokorra.

gero, gutxiengo baten interesak soilik lehenetsiko dira. Uliako Lore Baratzen egitasmoak, interes orokorreko espazio baten babesa egin du, Uliako eta Ategorrietako auzoen interes orokorra defendatuz.

Konkurtsu publikoaren bitartez, parkea kudeatzeko baimena lortu zuen Uliako Lore baratzen proiektuak, eta honekin batera, 2017. urtetik aurrera, Uliako Lore Baratzen Ingurumen Elkartek proiektuaren kudeaketa ardura osoa hartu zuen. Helburu naturalista eta ekologikoa duen elkarte kontsideratzen dira, baina aldi berean, Donostia hiri eta auzo mailako aspektu soziologiko eta kulturalak barneratzen dira. Uliako mendiaren babesa da elkartearen helburu nagusia eta hau abiapuntu gisa hartuta, auzoaren parte hartze eta integrazioaren bitartez dinamika ugari martxan jarri dira. Hortaz, esan daiteke, auzo egitasmo honek giza ekonomiaren aspektu gehienak jorratzen dituela.<sup>42</sup>

Aipatutako kontuan izanda, Donostiako udal gobernuarekin izandako eztabaidak etengabeak izan dira, espazioaren kudeaketari dagokionean. Espazio bati emango zaion erabilera ezberdinen talka da nagusitu dena. 2014. urtean konkurtsu publiko atera zuenean, Uliako Lore Baratzen proiektuak espazioaren kudeaketarako baimena eta parkearen zaintza lortu zuen. Hala ere, kudeaketarako baimena proiektuarekiko konpromisu handia izan, lurzorua jabetza udalaren jabetzaren zati izaten jarraitzen du, hortaz uliako bizilagunek lurzoruekiko duten eskubidea mugatua dela aitortu behar da.

Hortaz, lehiaketa publikoari esker, 2015eko otsailaren 19tik aurrera, behin behineko izaera duen administrazio baimena esleitu zitzaion Uliako Lore Baratzen egitasmoari. Gainera, parkearen kudeaketarako eta zaintzarako lizentzia 4 urteko epean zehaztu zen.<sup>43</sup> Era berean, ez da ahaztu behar eta kontuan hartzekoa da, 2014ko lehiaketa publikoan aurkeztu zen egitasmo bakarra Uliako Lore Baratzena izan zela.

Espazioaren kudeaketarako lagapena egin zen, alegia- Honela definitzen du Bherrilabek kontzesioa: *“Kotzesio hitzak ondasun publiko bat lagatzea esan nahi du, etengabe eta modu pribatiboan erabiltzeko.”* (BherriLab Txostena, 2019: 18. orr)

Donostiako udalak konkurtsoko objektu gisa orubearen erabilpen partzialaren baimenari egiten dio erreferentzia: baimena, hortaz, mugatua dela aitortu daiteke.

---

<sup>42</sup> Uliako Lore Baratzen Ingurugiro Elkarteen erregistroa. AS/G/20851/2017 znbk.

<sup>43</sup> Konkurtsu Publikoaren ebazpena: 5.art

Mugaketa hau ulertzeko, partzelaren izaera eta sailkapena ulertu behar da. Azken finean, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra<sup>44</sup> bizitegi erabilerara bideratutako lurzorua dela arautzen du eta hau martxan jarri bitarteko denboran garatuko den proiektuari emandako baimena jasotzen du lehiaketa publikoak. Hortaz, onespentak amaiera epea eta baldintza ugari dituela argi dago. Bestalde ez da ahaztu behar, Udaletxeak doan emandako esleipena dela, eta honela xedatzen du 12.1.artikuluak<sup>45</sup>: “*La autorización se otorga de forma gratuita, en precario y con carácter provisional al estar condicionada a la aprobación de los documentos urbanísticos que desarrollen las previsiones del PGOU sobre el destino residencial fijado para la parcela*”.

Bestalde, lehiaketa publikoaren esleipen ebazpenaren arabera, bi baldintza/betebehar ezarri ziren: lehenik eta behin, abal bidezko 1000 euroko fiantza bat eskatu zen. Eta beste aldetik, hirugarrenen kalteengatik erantzukizun zibileko poliza.<sup>46</sup>

Kudeaketarako eta zaintzarako baimena izan duten heinean, lorategi eta baratza proiektua martxan jarri da. Eragile ezberdinek kolaboratu dute eta izandako emaitzak positiboak izan dira auzoarentzako. Honen eraginez, 2018tik aurrera Udalaren etxebizitzak egiteko asmoa esekita gelditu da, eta beste eremu bat bilatu da plan hauek aurrera ateratzeko. Hala ere, lurzorua urbanizagarri izaera izaten jarraitzen duela aintzat hartzekoa da. Nahiz eta esekita dagoen plana diruri, parke izaera soila lortzea da Uliako Lore Baratzen erronkarik handiena. Behin parke izaera lortuta, berdegune osoak babes juridikoaren pean egongo litzake.

Azpimarratzekoa da auzo mugimendu baten proiektua gailendu egin dela eta udalak bere plana atzera bota eta aldatzeko erabakia hartu duela. Espazioen kudeaketa komunitarioari eta hiri nekazaritzari lekua ematea erabaki du udalak, ekonomia eredu berri bati lekua eginez.<sup>47</sup>

---

<sup>44</sup> Hiria Antolatzeko Plan Orokorra.

<sup>45</sup> Konkurtso Publikoaren ebazpena: 12.1.art.

<sup>46</sup> Konkurtso Publikoaren ebazpena: 8.4.art.

<sup>47</sup> <https://irutxulo.hitza.eus/2018/04/06/uliako-mintegietan-ez-dute-gazteentzako-etxebizitzarik-egingo/> (2019ko apirilean begiratuta)

Uliako Lore Baratzek aurkeztutako proiektuaren joera jarraituz, honela definitzen da objektu soziala: “[...] *la promoción y la organización de actividades culturales, de ocio, de expansión de los vecinos [...]*”<sup>48</sup>

### 3.3.2 Kontratu publikoaren arazoak.

Konkurtsu publikoaz gain, 2016ko helegiteari erreferentzia egin behar zaio auzo mugimenduaren borroka eta insistentzia ulertzeko unean, udaletxearen harremanaren harira. Konkurtsu publikoaren bidez parkearen zaintza eta erabilpena lortzea pausoa handia izan zela garbi dago, baina Donostiako Udalak etxebizitzak egiteko plana indarrean zuen oraindik. Horrela atzeman daiteke, konkurtsu publikoaren bidez ez zela parkearen babes osoa bermatzen.

Udal gobernuko alderdi politiko guztiek gazteentzako etxebizitza sozialen proiektua onetsi zuten. Nahiz eta luxuzkoak ez diren etxebizitzak izan, berdegune baten gainean eraikitzea zekarren plana zen. Parkearen suntsiketa suposatuko zuena. Eraikitze prozesu bat aurreikusiz gero, eraikitako eta sortutako berdeguneen suntsiketa etorriko dela adierazten du Uliako Lore Baratzak. (Rodríguez, L., elkarrizketa, 2019ko apirilaren 20ean)

Hau dela eta, Uliako Lore Baratzak Donostiako udalaren aurkako helegitea<sup>49</sup> aurkeztu zuen. Egitasmoaren argudio juridikoa udalak ingurumen txostena egin ez zuela izan zen. Udalak ez zuen eraikitze plan hori burutzeko beste eremurik aztertu, eta parkearen balioa arriskuan jartzeko plana proposatu zuen. Uliako Lore Baratzek Ingurumen Elkarteak, behin eta berriz argudiatu zuen, parkearen balio natural eta kulturalak babesteko: “[...] *Jasí que se trata de un lugar muy específico y con un alto valor histórico, cultural, medioambiental y social por contener los antiguos aljibes, que son elementos protegidos, con arbolado y una naturaleza de gran valor, contando con dimensiones apropiadas para un parque urbano.*” (EAE JAN 3111/2017 epaia :4.orr.)

Bestalde, ingurumen azterketa ez egitea salatu zuen Uliako Lore Baratzek egitasmoak eta honek, Ingurumen balioesteari buruzko abenduaren 9ko 21/2013<sup>50</sup> legea urratzen zuela adierazi zuen. Ingurumen ebaluazioak beharrezkoak izango dira planen aldaketak egiterako unean, nahiz eta aldaketak nabarmenak ez izan. Hortaz, udalak

---

<sup>48</sup> Konkurtsu Publikoaren Ebazpena: 6.1.a).art.

<sup>49</sup> EAE JAN 3111/2017 epaia.

<sup>50</sup> Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental.

etxebizitza sozialak egiteko erabakia hartu zuenenean, eta Hiria Antolatzeko Plan Orokorra aldatu zuenean hau burutu ahal izateko, lurzorua ingurumen eta natura inspektzioa egin behar izan zuen. Honako hau burutu ez zuenez, Donostiako Uliako Lore Baratzen proiektuak helegitea irabazi zio udalari.

Ikus daiteke naiz eta konkurtso publikoaren bidez parkearen erabilpena lortu, Udalarekin dagoen harremana ez dela erraza. ULBek eta Udalak ez dituzte helburu berdinak epe luzera eta hau aztertutako helegitean garbi adierazten da.

Bukatzeko, esan behar da proiektuaren bilakaeran erronka ugari sortu direla eta etorkizunean hala izango dela. Espazioa urbanizagarria dela kontsideratzen da oraindik, eta horrek parkea arriskuan jarriko duen edozein proiekturen sorrera suposa dezake. Hori dela eta lana eta mantentze ahaleginak etengabekoak dira

### **3.4 Egungo egoera eta helburuak.**

Etengabeko garapenean ari den egitasmoa da Uliako Lore Baratzen proiektua, eta egitura egonkortzen doan heinean helburu berriak azaleratuko dira. Egunerokotasunean, ideia eta ekimen berriak sortuz doaz, eta auzoan protagonismoa handiko gune gisa ezagutzen da. Hala ere, garbi dago konkurtsoaren 4 urteko lizentzia epea amaitzear dagoenez gero, erronka berriak topatuko dituela egitasmoak.

Udalak Konkurtso berria ateratzeko asmoa agertu du eta Uliako Lore Baratzen proiektuak lanarekin jarraituz aurkezteko intentzioa du. Eredu komunitario eta partehartzailearen aldeko apustua handia izan arren, datozen konkurtso berrietan lehia egingo duten beste hainbat erakunde aurkezteko posibilitatea ere egon litekela kontuan hartzen dute. Uliako Lore Baratzen egitasmoaren ustetan eredu komunitarioaren abantailak nabarmenak izan dira auzoan eta ingurumenari egiten zaion goraipamena nagusitu da, ekonomia eredu berritzaile bati aukerak emateko. Dinamizazio handiko esparru bat garatzea da helburua, hezkuntza eta pedagogia arloko gaiak mahai gainean jarriaz. Hala ere, aipatu gisa, etengabe garatzen doan proiektua denez gero, egunerokotasunean egiten da lan gehiena, erronkaz erronka. (Rodriguez, L., elkarrizketa: 2019ko apirilaren 20ean)

Aztertu beharreko beste ikuspegietako bat, partzelaren zati handia urbanizagarria izaten jarraitzen duela da, eta honekin batera bizitegi-talara bideratu dago. Beraz, bertan eraikitze prozesu bat hasteko arriskua beti indarrean dagoela esan daiteke. Aldi berean, joko politikoaren nagusitasuna nabari da, udal gobernuen koalizio eta tendentzia



ezberdinen arabera eredu komunitarioa eta honelako ekonomia erduei egindako apustua handiagoa delako beste alditan baino.

Egun Uliako Lore Baratzen proiektuan landa eta agro-ekologia lan handia nagusitu da. Honekin batera, auzoari identitatea eta bizitza ematen dion beste hainbat inizatiba eta ekitaldi egiteko baliabide gisa erabiltzen da. Etorkizunean Uliako Lore Baratzen proiektuak parkearen zaintza du irizpide, publiko guztiarentzako irekia dena. Parke publiko izaera aldarrikatzen da, alegia, helburu nagusia. Bestalde, jarduera komunitarioa kontuan izanda, hiri nekazaritza parte hartzailea bultzatu nahi da, ekonomia sozialaren oinarri diren integrazio eta kohesio soziala indartzeaz gain, aspektu kulturala ere kontuan izanda. Bizilagunen eta auzotarren topagune eta elkartzere eremu jasangarria eratu da. Honetaz gain, ingurumen ikuspegitik ekologia hartu da jarduera ororen ardatz bezala. Ekonomia jasangarrian sinisten da, birziklapenaren inguruko aholkularitza egiteaz gain, jarduera komunitario nagusia baratzen funtzionamendua eta zona berdeen zaintza baita. Arlo honetan, auzoko zabor organikoaren konposta ere aipatzekoa da. Kultura ikuspegia aztertuz gero, ur biltegi zaharren bisita gidatuak aipatzeko daude eta proiektuaren bilakaera orokorra azertu ezker, ondare historiko hauei egindako babesa handia izan da.<sup>51</sup>

Egungo egoera ulertzeko, 2019an Eusko Legebiltzarreko Euskara Kultura eta Kirol batzordeak, Uliako ur mintegiak babesteko deklarazioa argitaratu duela aipatu behar da. Alde batetik esan daiteke, deklarazio bat den heinean ez dela erabat loteslea. Hala ere, beste aldetik deklarazio honek Uliako parkea babesten du zeharka. Bertan dauden balio natural eta kulturalak babesteko ekimenak sustatzeko mezua luzatuz, Donostiako udalari bertan proiektu urbanistikoak ez egiteko deia egin dio. Euskal kulturaren ondare historikoak diren heinean, eta bai Europa mailan eta baita Espainia mailan ondare hauen babesen adibideak ugari dira, hori dela eta beharrezkoa da hauek babestea. Gainera ulertu behar da parkea eta ur biltegiak erabat baliokideak direla, eta balio kulturalari balio natural handiko esparrua gehitu behar zaiola, espazioaren aberasgarritasuna nolakoa den ulertzeko. (Kultura, Euskara eta Kirol Batzordearen espedientea, 2019)

---

<sup>51</sup><https://uliakolorebaratzak.wordpress.com/lortu-nahi-diren-emaizak/> (2019ko apirilean begiratuta)

### 3.4.1 *BherriLab. Eredu komunitariorantz.*

Garbi dago ekonomia soziala eta espazio publikoen kudeaketa komunitarioari ematen ari zaion aukera geroz eta handiagoa dela. Kontestu honetan, *Bherrilab* inizatiba derrigorrezkoa da aipatzea. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Sailak sortutako egitasmoa da, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin harremanetan eta elkarlanean sortu dena. Bi dira egitasmo honek dituen helburuak: lehenik eta behin gizartea eta botere publikoen arteko harremanak aztertuko dira, aspektu sozio-publikoak alegia. Bestalde, espazio publikoen kudeaketa komunitarioaren sustapena jorratzen da. Azken honetan, Uliako Lore Baratzen parte hartzea aipatu behar da.<sup>52</sup>

Etorkizunari begira hortaz kontuan hartuko den elementua da *Bherrilab*: “*BherriLab bat da erronka bera duten agente ezberdinak topatzeko eta elkarrekin lan egiteko egoera. Egoera hori ahalik eta baldintza onenetan gerta dadin, BherriLabek adimen kolektiboan, baterako diseinuan, lankidetzako esperimentazio irekian eta konfiantzako harremanen sorreran oinarritutako printzipioak, prozedurak eta erremintak ematen ditu.*” (BherriLab txostena, 2019: 3.orr)

Espazio publikoen erabileran eman daitezkeen eredu ezberdinen inguruan eztabaidatzeko aukera ematen du. Uliako Lore Baratzen kasuan ikusi dugun bezala, ez da erraza botere publikoekin harremana izatea, askotan ildo burokratiko nahiz politikoak eragozpen handiak jartzen dituztelako. Ekimen hauen bidez administrazio publikoaren eta herritarrek aurrera ateratzen dituzten ekimenen arteko harremana sendotu egingo da, aspektu ezberdinen inguruko azterketa eginez.

Honen harira, *BherriLabek* kasuz kasuz kolaboratzeko ardura hartzen du, aipatutako oztupoak ekiditeen laguntzen eta espazio publikoen eredu komunitarioaren aldeko apustua egiten. Eragile ezberdinen arteko harremanak inportantzia handia dute espazio bat komunitatearen bidez kudeatzen denean, eta horregatik proiektu egonkor eta egituratua sortzea beharrezkoa dela azpimarratzen du.

Administrazioaren eta herri ekimenen arteko berdintasun bat lortzea da helburu nagusia, ez da botere harremana sortzea nahi. Kolaborazioa eta lana banatzea dira erronka handienak. (BherriLab txostena, 2019)

---

<sup>52</sup> <https://bherria.eus/es/bherrilab/> (2019ko apirilean begiratuta)

Azkenik, parkearen suntsiketa suposatuko lukeen edozein eraikitze planek, denboran zehar lortutako ekintza eta lorpen asko galtzea ekarriko lukete. Proiektua sortu zenetik honaino, auzoan umeentzako jarduera ugari hezkuntza egitura berri bat sortu dutela esan daiteke adibidez. Bestalde, espazio publiko berde bat beste modu batean erabiltzeko aukera egiazkoa dela aldarrikatu da. Ekonomia eredu tradizionaletik kanpo dagoen eredu garbia da, non jasotako iritzi eta abantailek beste espazioen erabilera eredu ginetik gailentzen duen. (Rodriguez, L., elkarrizketa, 2019ko apirilaren 20ean)

Hortaz, ULB ingurugiro elkarteak dituen etorkizuneko helburu nagusiak bi ildo nagusitan bereiztu daitezke: lehenik eta behin parkea publikoa egitea eta hau jendeak ezagutzea da. Eta bigarrenik, hirigintza planen aurrean parkea eta garatutako egitasmoa babestea.

Gizarte ekonomiaren ezaugarriei eta printzipioei erreferentzia egin ezker, egitasmo honetan praktikan eraginkortasuna dutela ikusi daiteke. Aspektu sozialean, bizilagunen arteko harreman ezberdinak sortu dira. Kontuan izan behar da belaunaldi ezberdinen arteko hurbilketa bat sorrarazi duela, bizi kalitate handia eskainiz. Jatorri, adin eta ideologia ezberdineko jendea elkartzeko aukera izan da. Bestalde, agro ekologia eta hiri nekazaritza arloan egin den lana oso sakona da, bai baratza komunitario eta kolektiboetan. Eskura dauden elementu naturalak erabili eta ulertzeko tailerren bidez, auzotarrek lurra ustiatzen ikasten joan dira, espazio berdeei funtzio berriak emanez eta kontsumo eredu berri bat garatuz. Konposta egiteko inizatibek, ingurugiroarekiko ardura eta kontzientzia piztea laguntzen du. Bestalde, aspektu urbanistikoari erreparatuz gero, hiri eredu berri bati lekua egiten dio, espazio publiko batean auzotarren interes orokorra babesteko duen egitasmo bat sortu da, botere publikoak parte hartze zuzena izan gabe. Honek gizarteko ideia berri eta berriztagarrien islada da. (Rodriguez,L, elkarrizketa, 2019ko apirilaren 20ean)

*“Porque es así, atendiendo a las necesidades reales, cómo podemos generar innovación y cambio social, empezando por nuestro barrio”* (ULB txostena, 2017: 8.orr)

#### **4. ONDORIOAK.**

Aipatutako aspektu guztiak aintzat hartuta honako ondorio hauek atera dira:

**Lehena.** Ekonomia eredu berriek izandako azken bilakaera nabarmena da, batez ere, jasangarriagoa eta sozialagoa den ekonomia aipatzerakoan. Era berean, aipatutakoa gizartean sortu eta etengabe aldatzen ari den kontzientzia berrien ondorio zuzena da.

Ekonomia sistema tradizionala dudari jarri izanagatik, gizarteak bere buruaren jabe izateko nahia adierazi du. Enpresek ekonomia mugitzen dutela garbi dago, eta hauek burutzen duten jarduerako ekonomiaren garrantzia ez da ahaztu behar. Hala ere, azken urteotan ikusi denez, enpresa ereduari eta burututako jarduerari ekonomikoan dago gako. Ekonomia eredu berriak bilatu nahi izanez gero, ekonomia sozialeko erakundeetarako jotzea da egokiena. Hortaz, gizarteari ekonomian parte hartze handiago eskaini behar zaio, gizartean indarrean dauden ideia berriztagarriak ekonomiara iristeko biderik egokiena direlako.

**Bigarrena.** Honekin batera, botere publikoen joera aldaketa sumatu dela esan daiteke, gizartearen eskaera eta demandei entzun ondoren. Hala ere, oraindik garbi dago lan handia dagoela egiteko. Nahiz eta ekonomia sozialeko erakundeek garrantzi berezia eman, praktikan oraindik emaitza gehiago lortzeko gaitasuna dago, eta hori dela eta ekonomia eredu berriei egin beharreko apustua handiago izan beharko luke. Botere publikoen ekonomia sozialeko erakundeekiko konfiantza lortzea beharrezkoa da hazkunde egonkor bat nahi bada.

**Hirugarrena.** Aztertutako hiri baratzak, hiri handietako berdeguneak bizirik mantentzeko proiektu egokienak dira. Hiri nekazaritza eta ekologiarik hauspo emateko baliabide gisa ulertu behar da. Funtsean, ingurukoarekin eta hau errespetatuz jarduerari ekonomikoa aurrera ateratzean datza. Azken finean, aipatzekoa da, ez dela berdegune bat aurkitzen den lurzorua jarduerari ekonomiko bat aurrera ateratzeko erabiliko, baizik eta lurzoruaren natura balioa errespetatuz eta honen aberastasuna aprobetxatuz, berdegune honekin batera jarduerari ekonomikoa burutuko dela baizik.

**Laugarrena.** Auzo mugimenduen kemenak hirietako eremu marjinalen sorrerari ekidini du espazioei zentzu ezberdinak eman. Gogora ekarri behar da, auzoen identitateak lortzeko duen garrantzia, auzoak bizirik mantenduz. Hortaz, auzoari ahotsa ematea inportantea da, eremu lokalari garapen eta aberastasuna ekartzeko aukera baita. Beraz, auzoen behar eta ekimenak entzunez gero, beraien burua antolatzeke aukera eman behar zaie, auzoetako ekonomia txikiak sortuz eta lokalki garapena ekarriz.

**Bostgarrena.** Marko juridiko zehatzago baten falta dago. Nahiz eta aurrerapausoak handiak izan ez dira nahikoak gizartean dagoen behar eta kontzientziak asetzeko garaian. Nolabait ondorioztatu daiteke, gizartea bera legeak baino azkarrago garatu dela eta hutsune juridiko handi bat sorrarazi duela. Ekonomia sozialean barneratu daitezkeen proiektu ugari zailtasuna dute babes juridikoa lortzeko unean, askotan legeek

interpretaziorako eremu handia uzten baitute; jarduera ekonomikoaren baldintzaren kasuan adibidez. Hortaz, esan daiteke une honetan gizartean ideia ugari daudela, baina hauek babestuko dituen marko juridiko garatu eta sendo baten falta nabarmena dela, zehazki ideia hauen martxan jarri nahi direnean.

**Seigarrena.** Autogestioak, hitzak adierazten duen moduan, pertsoneri beraien burua antolatzeko eta jarduera ekonomiko bat aurrera aterako aukera ematen dien. Burujabeak diren heinean, eta gertutasunetik, garapen lokala eta ekonomia jasangarri bat lortzeko aukerarik egokiena da pertsona talde baten autokudeaketa. Funtzionamenduak berak, bizikidetasun eta solidaritate baloreak barneratzen ditu, ekonomia sozialeko ardatz direnak. Autokudeaketari benetako apustua eginez gero, ekonomia jarduera egonkorra lortzeko gaitasuna dago, parte hartzaile bakoitzak bere jakintza profesionalaren ekarpena egingo du, proiektu jantzi bat eratuz.

**Zazpigarrena.** Uliako Lore Baratzen egitasmoa aztertu ondoren, antzeman daiteke espazio publikoer erabilera ezberdinak emateko aukera zabala dela. Garbi ikusi da, kasu honetan udal gobernuak espazio publikoen erabileraren inguruan irizpideak aldatu egin dituela, batez ere hiri mailako berdeguneen arloan. Espazio publiko bat komunitarioki kudeatzerako unean proiektu sozial eta ekologiko sortzeko gaitasuna azpimarratu behar da. Herritarrei egindako kudeaketarako lagapenak, auzo eta auzotarrei hiri ereduetan parte hartze zuzena izateko aukera ematen die. Esan daiteke espazio publikoen inguruko politika aldatzen joan dela.

## 5. BIBLIOGRAFIA.

- Barrera, E., Sarasola, J.L., eta Malagón, J.C. (2017). Resurgimiento comunitario ante la nueva realidad socioeconómica. *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, 124.zbk. 9- 31.orr.
- Camara Menoyo, C. (2012). Las iniciativas de participación ciudadana en el urbanismo. El urbanismo participativo, una nueva forma de entender la ciudad y la ciudadanía en la configuración de espacios públicos. *URBS. Revista de Estudios Urbanos y Ciencias Sociales*, 2.zbk. (1), 19-32.orr.
- Castells, M. (1986). *La ciudad y las masas. Sociología de los movimientos sociales urbanos*. Alianza universidad textos. Alianza editorial. (348-440.orr)

- De Castro Sanz, M. (2005). La responsabilidad Social de las Empresas, o un nuevo concepto de empresa. *CIRIEC, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 53.znbk, 29-52.orr.
- Díez Sastre, S. (2017). Las clausulas sociales en la contratación publica. *Anuario de la facultad de Derecho de la Universidad Autónoma de Madrid*, 21.znbk, 195-219.orr
- Fajardo García, G. (2012). El concepto legal de la economía social y la empresa social. *GEZKI*, 8.zbk. 63-84.orr.
- Garcia Jané, J., Ruggeri, A., eta Iametti Señorino, A. (2012). Autogestión y Economía Solidaria. *REAS, Red de Economía Alternativa y Solidaria de Euskadi. Papeles de Economía Solidaria*. 3.znbk.
- Harvey, D. (2012). *Ciudades rebeldes, del derecho de la ciudad a la revolución urbana*. Ediciones Akal.
- Laville, J.L. (2015). *Asociarse para el bien común. Tercer sector, economía social y economía solidaria*. Icaria editorial.
- Lesmes Zabalegui, S. (2018). Guía de compra publica responsable y del fomento de la contratación publica de entidades y empresas de la economía social. Ley 9/2017, de 8 de noviembre de Contratos del Sector Publico. *CEPES, Confederación Empresarial Española de la Economía Social*.
- Martinez Garcia-Posada, A. (2016). La ciudad entre sus escombros. Historias latentes en la ciudad de Berlín. *REIA, Revista europea de investigacion en arquitectura*, 6.znbk, 89-102.orr.
- Martinez-Otero Perez, V. (2001). Movimientos sociales y transformación de la sociedad. *Pulso: revista de educación*, 24.znbk, 59-72.orr.
- Miró, I. (2015). ¿Porqué le llamamos innovación a lo que vivimos como autogestión?. Subirats, J. eta Garcia Bernardos, A. (eds.) (2015). *Innovación social y políticas urbanas en España. Experiencias significativas en las grandes ciudades*. (205-210.orr) Icaria, Política.
- Molina Molina, J. (2015). El impulso de la economía desde la participación ciudadana. *Encuentros multidisciplinares. Aportaciones de la ciencia a la sociedad*, 17.bilduma, 51.zbnk, 18-29.orr.

- Morán Alonso, N. eta Aja Hernandez, A. (2011) : *Historia de los huertos urbanos. De los huertos urbanos para pobres a los programas de agricultura urbana ecológica*: Actas del Congreso Estatal de Agricultura Ecológica Urbana y Periurbana. Elche, Archivo Digital UPM, 2011ko maiatzaren 6 eta 7an.
- Ostrom, E. (1990). *El gobierno de los bienes comunes. La evolución de las instituciones de acción colectiva*. Fondo de cultura económica, 2011.
- Padilla Ruiz, P. (2011). Comentarios a la Ley 5/2011, de Economía Social. *Revista Aranzadi Doctrinal*. 3.zbnk.
- Paniagua Zurera, M. (2011). *Las empresas de la economía social. Más allá del comentario a la Ley 5/2011, de economía social*. Marcial Pons. Ediciones jurídicas y sociales, S.A., Madrid.
- Rodríguez, V. (2002). El movimiento vecinal y la inmigración. *Nuevos escenarios, nuevos retos en la red: anuario de movimientos sociales*. 47-60.orr.
- Sanz, A. (2015). Los huertos urbanos de Benimaclet. Subirats, J. eta Garcia Bernardos, A. (eds.) (2015). *Innovación social y políticas urbanas en España. Experiencias significativas en las grandes ciudades*. (233-239.orr.) Icaria, Política.

#### **Araudia:**

- Gizarte Ekonomiaren martxoaren 29ko 5/2011 Legea. *BOE*, 76.zbnk, 2011ko martxoaren 30ean.
- 15/2014 Foru araua, abenduaren 10ekoa, Gipuzkoan ekonomia soziala bultzatzeari buruzkoa. *Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala*, 237.zbnk, 2014ko abenduaren 12an.
- Directiva 2014/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo de 26 de febrero de 2014 sobre contratación pública y por la que se deroga la Directiva 2004/18/CE. *DOUE*, 94.zbk, 2014ko martxoaren 28an.
- Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014. *BOE*, 272.zbk, 2017ko azaroaren 9an.
- Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legea. *BOE* 170.zbk, 1999ko uztailaren 17an.

- Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental. *BOE*, 296.znbk, 2013ko abenduaren 12an.
- Hiria Antolatzeko Plan Orokorra. Ategorrieta-Ulia. Donostiako Udal artxiboa: [https://www.donostia.eus/info/ciudadano/urbanismo\\_planos.nsf/voWebContentId/osId/D1A7E5B7646D8FF8C1257AB600343739/\\$file/AAPP%20-%20Ategorrieta-Ulia.pdf](https://www.donostia.eus/info/ciudadano/urbanismo_planos.nsf/voWebContentId/osId/D1A7E5B7646D8FF8C1257AB600343739/$file/AAPP%20-%20Ategorrieta-Ulia.pdf)
- Hirigintza eta Ondarea Babesteko Plan Berezia. 2.2. Ordenantza partikularrak: Udal ur andelak. 2014ko otsailaren 27an. Donostiako Udal artxiboa: <https://www.donostia.eus/Patrimonio/PEPPUC/eus/GR%20F-19.pdf>

#### **Epaia:**

- EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko Auzien Salako 3111/2017 epaia. 2017ko irailaren 29an.

#### **Konkurtsu publikoaren ebazpena:**

- *Condiciones para autorizar el uso parcial de la parcela AU.05.1 Viveros de Ulia.* Ondare eta Kontratazio zerbitzua. Finantza zuzendaritza. Donostiako Udala. 2015eko otsailaren 9an.

#### **Erregistroetako dokumentuak:**

- Uliako Lore-Baratzak Ingurugiro Elkarteak. *Administrazio erregistroak. Gobernantza publiko eta autogobernu saila, Eusko Jaurlaritza. AS/G/20851/2017 znbk:* [http://opendata.euskadi.eus/contenidos/asociacion/asg208512017/es\\_def/adjuntos/x42tAsociacion.pdf](http://opendata.euskadi.eus/contenidos/asociacion/asg208512017/es_def/adjuntos/x42tAsociacion.pdf)
- Uliako Mintegietako parkea zein bertan dauden balio kulturalako elementu ezberdinak kultura-ondasun kalifikatu deklaratzearen inguruan. *Kultura, Euskara eta Kirol Batzordearen espedientea. Eusko Legebiltzarreko erregistro orokorra:11\11\02\01\0522 znbk*

#### **Txostenak:**

- BherriLab (2019) BherriLab txostena. Herritarren berrikuntzako Bherria laborategiak. Espazio publikoen kudeaketa komunitariorako bidean: [https://bherria.eus/wp-content/uploads/2019/02/BherriLab-Txostena\\_2019.pdf](https://bherria.eus/wp-content/uploads/2019/02/BherriLab-Txostena_2019.pdf)
- Uliako Lore Baratzak (2017). Huertos educativos ecológicos. Como un jardín.



### **Egunkari eta blogetako artikulak:**

- La gestión comunitaria en la economía social y solidaria. (2015eko martxoaren 6ean). *Diagonal* : <https://www.diagonalperiodico.net/movimientos/25987-la-gestion-comunitaria-la-economia-social-y-solidaria.html>
- Uliako mintegietan ez dute gazteentzako etxebizitzarik egingo. (2018ko apirilaren 6ean). *Irutxulo Hitza*: <https://irutxulo.hitza.eus/2018/04/06/uliako-mintegietan-ez-dute-gazteentzako-etxebizitzarik-egingo/>
- Claves del modelo de innovación social del barrio de Ulia, Donostia. (2019ko otsailaren 8an) *Naider*: <http://naider.com/claves-del-modelo-de-innovacion-social-del-barrio-de-ulia-donostia/>

### **Web guneak:**

- Uliako Lore Baratzak, 2019: <https://uliakolorebaratzak.wordpress.com>
- BherriLab, 2019: <https://bherria.eus/es/bherrilab/>

### **Elkarrizketa:**

- Uliako Lore Baratzak Ingurugiro elkartearen lehendakaria den, Leire Rodriguezi, elkarrizketa. 2019ko apirilaren 20ean.